

Herririk Herri |3|
Kultura arteko topaketa ospatuko dute Berrizen domeka honetan



Berbaz |7|
M. Larrauri: "Nire ilusioa beti izan da gizarte zerbitzuak eraikin berean batzea"

Kirola |14|
Areto-futboleko Bigarren Mailara igotzea lortu du Durangoko Sapuberrik

CCOOk erakundeen inplikazioa eskatu du Fytasa-Ductilorren

Elorrio• Fytasa-Ductilor enpresak inbertsore berriak behar ditu aurrera egiteko, eta alor horretan erakunde inplikazioa eskatu du CCOO sindikatuak: "Neurriakahalik eta arinen hartu behar dira, laster beharginek ez dutelako lanik izango". 100 langile dabilta Elorrioko enpresan.

3

Alkateak izendatzeko udalbatzarrak egingo dituzte bihar

Durangaldea• Alderdi bozkatuenek gehiengo sinplea duten herrietan alkatetzakez daude argi. Elorrioren, PPK EAJren hautagaia babesten badu Ana Otadui jeltzalea izango da alkate. Durango, Iurreta, Abadiño eta Berri-zen ere aldaketak izan daitezke.

4

Iurretako plazetan bost ikuskizun, hilaren 17tik 19ra

KULTURA • Asteon aukeztu dute V. Kalez Kale ekimena. Euskal Herriko antzerki taldeen bost antzezlan ikusgai izango dira Iurretako plaza eta kaleetan. Kukubiltxok, esaterako, *Kukubel* lana eskainiko du.

9



• **Abadiño**
Urkiolako komunitatea omenduko dute urteetako lana eskertzeko

2

• **Mallabia**
Adrian Deunaren jaiak ospatuko dituzte Gereaa auzoan

4

• **Zaldibar**
Kirol jaia eratu dute eskolan

2

Hasi da Emakumeen Bira, Marianne Vos garaile dela

> 2008an lortu zuen garaipena berri guran datorrela erakutsi du txirrindulari holandarrak

> Gaur Lekeition, bihar Kanpazarren eta Deban, eta etzi Urduñan erabakiko da Bira

13



Zitzu bizian sartu ziren Iurretako Maspe kalean txirrindulariak, lehenengo etapako esprintean. Kepa Aginako

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Elitua Industriegunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.com

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO

Urkiolako komunitateari omenaldia ekainaren 12an

Egindako lana eskertuko dio Gerediaga elkarteak Urkiolako komunitateari



San Antonio egunaren bezperarako antolatu dute omenaldi ekitaldia. Gerediaga Elkartea

E kainaren 13an Urkiolako gainaren inguruak bisitariz beteko dituen San Antonio egunaren bezperarako antolatu ditu Gerediaga elkarteak Urkiolako komunitateari esker ona adierazteko ekitaldiak.

Misio lanetan ez eze, "Urkiola zaintzen, mantentzen, suspertzen... borondatez ibili diren lagunek egindako lana eskertzeko omenaldia" izango da, Gerediaga-ren berbetan, ekainaren 12koa. 1970eko hamarkadan gainbehera zegoen ingurua berreskuratzen egindako lana eskertu gura diote horrela komunitateari.

Domeka eguerdian, 13:00etatik aurrera, Urkiolako Santutegian bertan egingo dute omenaldi ekitaldia. Besteak beste, Durangoko Orfeoia, Kriskitin dantza taldeak

Urkiola zaintzen, mantentzen eta suspertzen borondatez egindako lana eskertuko diete

eta Talde Batuak abadiñarrak parte hartuko dute omenaldi ekitaldian. Bestetik, Urkiolako komunitateak egindako lanaren erakusgarri den argazki bilduma proiektatuko dute. ■ I.Esteban.

San Antonio eguna ospatzeko egitarau zabala astelehenerako

Ohiturazko ekitaldiekin ospatuko dute, komunitateari omenaldia egin eta hurrengo egunean, Urkiolako Santutegian, San Antonio eguna. 10:00etan, 11:00etan, 13:00etan eta 18:00etan izango dira mezak, eta Juan Maria Uriarte Donostiako gotzain ohiak emango du

12:00etako meza nagusia. Ondoren, Urkiolako San Antonio eguneko ohiturari jarraituz, bertsolari eta trikitilarien saioak, eta nekazal zein abeltzaintza azoka izango dira.

Bertsotan, Peñagarikanok eta Azpillagak jardungo dute ekainaren 13ko hitzorduan.

ZALDIBAR

Eskola kirola nagusi izango da asteburuan

Gaur hasi eta domekara arte erakusketa eta lehiaketetan parte hartuko dute gaztetxoek

Ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera edukiko dute asteburu honetan Zaldibarko gaztetxoek. Denboraldia amaitzeaz dela eta, kirol jaia eratu dute eskolan.

Gaur, arratsaldeko 16:30ean, ekingo diote jaialdiari eskolako frontoian. Bertan pilota erakustaldia eta herri-jolasak izango dira

Gaur, arratsaldeko 16:30ean, ekingo diote jaialdiari eskolako frontoian

ikusgai. Bihar, zapatua, goizeko 09:00etan eta 11:00etan, futbol lehiaketan parte hartuko dute kiroldegian. Arratsaldeko 16:00etan karatea praktikatuko dute, eta 18:00etarako aerobic erakustaldia programatu dute. Domekan, amaitzeko, kiroldegian saskibaloia txapelketan neurtuko dituzte indarrak Zaldibarko eskolako bi taldeek.

Bidaia zikloa

Bestalde, egunean bidaiari gainezko zikloa zabalduko dute udal liburutegian. 18:00etan *Mundua hurbilduz* ikus-entzunezkoa eskainiko dute lehen gonbidatuek. ■ M.O.

Bide segurtasunagaz loturiko hainbat datu

Hamarkada honetan Abadiñoko bide istripu kopurua erdira murriztu dela dio gobernua

Abadiñoko Independienteak taldeko jarduneko gobernua asteon zabalduko datuen arabera, duela hamarkada batetik hona, "%55 jaitsi da Abadiñoko ezbehar-tasa". Jarduneko udal gobernua hedabideetara bidali duen oharrean azpimarratzen denez, "istripu kopurua etengabe joan da murrizten; orain hamar urte 126 izate-tik 2010ean 56 izatera pasatu gara", nabarmendu du datuak zabaldu dituen Abadiñoko Independenten-taldekako gobernua.

"Orain hamar urte 126 bide istripu izate-tik 2010ean 56 izatera pasatu gara", nabarmendu du gobernua

Jarduneko Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, "2007an alkatetza lortu zuenetik, aparte-ko ahaleginak egin ditu Abadiño-ko Independenten-taldekako istripu kopurua txikitu eta kaleetako bide segurtasuna hobetzeko". Jarduneko alkateak, talde independenteko gobernua zentzu horretan hartutako neurrien zerrenda plazaratu du: "Kamioiak Matienatik pasatzea debekatu dugu, eta trafikoa moteltzeko neurriak hartu; semaforo berriak jarri eta bi errotanda eraiki ditugu".

Udalak errepideetako segurtasuna hobetzeko neurriak hartzen jarraituko duela iragarri du, ohar horretan, jarduneko gobernu taldeak: "Arlo horretan egindako lan guztiak ordaindu ezinezko onurak dakartza". ■ I.E.

IZURTZA

Lehiaketa bidez hautatuko dute jaietako kartela, bigarren urtez

Udaletxeko iragartokietan zein udalaren interneteko www.izurtza.net webgunean ere eskuragarri daude iraileko herriko jaietako kartela hautatzeko udalak deitu duen lehiaketaren oinarriak.

Proposamenak aurkezteko ekainaren 30era arteko tartea izango dute parte hartu gura dutenak: Izurtzako udaletxean, formatu digitalean zein DIN A3 tamainako paperean inprimatuta aurkeztu ahalko dituzte parte-hartzaileek euren lanak: 50x70 zentimetroko neurrikoak behar-ko dute izan karteak.

Udaletxeko iragartokietan eta www.izurtza.net-en daude oinarriak eskuragarri

Udaleko Kultura Batzordeak osatutako epaimahaiak hautatzen duen lanaren egileak 250 euroko saria jasoko du. Sariak banatzen dituztenean, udaletik jakinarazi dutenez, "egoki ikusiz gero, aurkeztutako kartel guztiekin erakusketa antolatuko" dute.

Izurtzako jaiak 2011 testua eroan beharko du kartelak derri- gorrez, eta herriko jaien ezaugarriren bat adierazi. Egileen esku utzi dituzte, berriz, baliatutako teknikak eta gaiak. ■ I.E.

ATXONDO

Autodefentsa ikastaroa antolatu dute Lamiak-ekoek

Ekainaren 18an *Autodefentsa ikastaroa* emango du gimnasioan Maitena Monroyk. Atxondoko Lamiak elkarteak antolatu du ikastaroa, eta datorren eguaztena, hilaren 15ean, izango da azkeneko eguna izena emateko.

Egun osoko ikastaroa izango da, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era. Elkartetik adierazi dutenez, ikastaroan alderdi fisikoa eta psikologikoa landuko dituzte: "Helburua egunerokotasunean bizi ditugun erasoan aurrean fisikoki eta psikologikoki prestatzea da".

Autodefentsa ikastaroan izena eman gura duenak, Regina okindegian egin dezake eguaztena aurretik. Atxondoko Lamiak-en telefonora ere deitu daiteke: 635 842 757. Elkarteko bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute, eta bazkide ez direnek, berriz, 30 euro. ■ A.U.

Egun osoko ikastaroa emango du gimnasioan Maitena Monroyk

Izen-ematea Regina okindegian edo telefonoz egin daiteke, hilaren 15a baino lehenago

ELORRIO

Antzinako Ogibideen Azoka, hilaren 18an, San Agustinen

Azokaz gainera, historiagaz lotutako hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte



Bi urterik behin egiten den azokan, besteak beste, antzinako jostunen moduan jardungo dute.

Bihar zortzi San Agustin auzoan denboran atzera egingo dute Aintzinako Ogibideen V. Azokan. Bi urterik behin Olazar auzo elkarteak antolatzen duen azokan, erakusketez gainera, tailerrak, antzerkia eta jolasak egongo dira. Aspaldiko kontueta- ra, baina, ez dira zapatuan bakarrik gerturatuko; astean zehar historia arloko hitzaldi bi antolatu dituzte, esaterako.

Nafarroako konkista 500 urte berbaldiagaz hasiko dira azokaren inguruko ekimenak eguaztenean.

Barikuan Toti Martinez Lezeak Erdi Aroko ohituren inguruko berbaldia emango du San Agustingo elizan

Kultur etxean eskainiko dute berbaldi hori, 19:30ean. Barikuan San Agustingo elizara Toti Martinez Lezea idazlea etorriko da Erdi Aroko ohituren gaineko hitzaldia ematera. 20:00etan izango da hitzaldi hori, eta ondoren Berriotxo Abes-

batzak kontzertua eskainiko du elizan bertan.

Zapatuko azoka

Hilaren 18an, 11:00etan hasiko da azoka, hainbat ogibideri buruzko erakusketekin; errementariak, buztingileak, okinak, jostunak, harginak... xaboia eta papera egiteko tailerrak eta gazta egiten zein zaldiak perratzen ikusteko aukera ere egongo dira. Umeentzat jolasak, tailerrak eta antzerkia antolatu dituzte. Hegaztien erakusketekin amaituko da eguna. ■ A. Ugalde

Fytasa-Ductilor ez ixteko, inplikazioa eskatu dute

Inbertsore berriak behar ditu fundizioak, eta horiek bilatzeko ahalegina eskatu die CCOO-k erakundeei

Azken hilabeteotan inbertsore berrien zain dago Fytasa-Ductilor. Likidazio prozesuan, amaitzeko dituzten lanak burutzen dabil-tza une honetan, eta inbertsore berririk ageri ezean, fundizioa zarratu egin beharko dute. Egoera horren aurrean, sindikatuek "jabeen kudeaketa txarra" salatu dute berriro, eta CCOO-k instituzioen "inplikazio falta" salatu du: "inbertsoreak lortzeko moduak topatzeko ahalegina" eskatu die erakundeei.

Roberto Martin eskualdeko CCOOko arduradunak nabarmendu duenez, neurriak ahalik eta lasterren hartu beharko dira-

teke: "egun kontua da; laster behargineke dute lanik izango".

Fytasa-Ductilorren 100 langile inguruk egiten du lan. CCOO-ren iritziz, "enpresak kudeatzaile egoki batzuekin errentagarritasunera bueltatzeko aukerak ditu, horretarako teknologia, produktua eta merkatua dauzkalako; 1915ean sortutako fundizioa "ez zarratzeko aukeraguztiak ez baliatzea barkaezina litzateke". ■ A.U.

Enpresaren likidazioa "egunetako kontua" izan daitekeela diote sindikatuek

Diruzaintzan bi milioi baino gehiago ditu udalak

"Krisi garaia eta aurrera ateratako egitasmoak kontutan hartuta, udala egoera ekonomiko osasuntsuan" uzten duela nabarmendu du Niko Morenok, alkatetzako azken astean: diruzaintzan bi milioi euro baino gehiago dauzka Elorrioko Udalak.

Udalbatzaren azken erabakien berri ere eman du alkateak. Iturri kultur etxean sortu diren hezetasunak aztertze-ko lanak esleitu ditu udalak, 15.000 euro

ordainduta. Errugbi zelaian ureztatzeko sistema berria ere ipiniko dute, 43.000 euroko kostuagaz.

Laster martxan ipini beharreko proiektuen artean auzoetarako garraio zerbitzua aipatu du Niko Morenok. Diseinua eginda dagoela azaldu du: "Hainbat taxi ibiliko dira beharrean, eta barikue- tan zerbitzu finkoa egongo da auzo guztietara". Beste zerbitzuak eskarien arabera zehaztuko direla argitu du. ■ A.U.

BERRIZ

Kultura arteko topaketa ospatuko dute domekan

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaialdi honen seigarren edizioa izango dena

Inmigrazioaren inguruko gaietan herritarrak sentsibilizatzea eta hainbat kulturatako pertsonen arteko hartu-emanak sustatzea dira domekako jaialdiaren helburu nagusiak. Inmigrazio Kontseiluak kultura arteko topaketa errepikatze-ko "beharrizana" ikusi du, aurreko urteetan egindakoari jarraituz; aurtengo seigarren edizioa izango da. "Berrizen hainbat kulturatako pertsonak bizi direla kontuan hartuta, elkar ezagutu eta hartu-emanetan jartzeko gunea izango da topaketa hau", ardura- dunen arabera.

Errumania, Maroko, Sahara, Txile, Senegal eta Euskal Herriak izango dute lekua

Ekimena "berriztar guztiei zabalik dago" eta, besteak beste, hurrengo herrialdeetako berriztarren kultura eta ohiturak emango dira ezagutzera: Errumania, Maro-

ko, Sahara, Txile eta Senegal. Euskal Herriko tradizioek ere edukiko dute lekua.

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaia Learreta Markina ikastetxean. Dantzak eta tailerrak antolatuko

dituzte; tartean, tailer gastronomikoa ere bai. Gero, 14:00etan, bazkariagaz jarraituko dute, eta eguna amaitzeko deneriko musika eskainiko dute, dantzarako aukera emanez. ■ M. Onaindia



laz ere burutu zuten kultura arteko topaketa Berrizen.

BIZITZA OSOAN

ZE HARREKO IKASKUNTZA

IKASKUNTZARAKO BITARTEKARITZA ZERBITZUA

25 urtetik gora dituzten eskualdeko guztiei zuzendutako Ikaskuntzarako Bitartekaritza Zerbitzua - Durangaldeko Behargintza

Zerbitzuak eskaintzen duena:

- **PERTSONENTZAT**
Durangaldean dauden ikasteko aukera guztiei buruzko **INFORMAZIOA** eta pertsona bakoitzarentzat egokienak diren aukerei buruzko kalitatezko **AHOLKULARITZA**.
- **PRESTAKUNTZA ZENTROENTZAT**
Eskualdeko prestakuntza eskaintza era koordinatuan eta eguneratuan jasotzen duen datu-basea.
- **ESKUALDEKO ELKARTEENTZAT**
Eskualdeko elkarteek antolatutako aktibitateen **HEDAPENA**.

www.hiru.com/ikagida
 Zerbitzuaren posta elektronikoa:
prestakuntza.mdurango@bizkaia.org
 Durangaldeko Behargintza
 Laubideta, 6
 Tel.: 94 623 25 22
www.mdurango.org

Durangoko Merinaldearen Armarria
 Mancomunidad de la Merindad de Durango

Durangaldeko Behargintza
 Eskualdeko Kontseilua
 Agencia Cultural de Durango

Euzko Jaurlaritzako
 GOBERNUA

DURANGALDEA

Bihar erabakiko dira datozen lau urteetarako alkateak

Bost herririk handienetan alderdien arteko itunek baldintzatu dezakete bozketa



Durangon zapatuan, 08:00etan, izango da inbestidura ekitaldiko udalbatzarra.

Zapatu goizean Durangaldeko 12 herrietan egingo dituzten udalbatzarretan hautagai bozkatuenek aginte makila hartuko dute eskuan.

Bilduk herri txiki ia guztien alkatetza segurtaturik du. Atxondon Rosa Maria Elizburu izango da alkate, Otxandion Santi Uribe, Mallabian Maria Milagros, Mañarian Endika Jayo eta Izurtzan Luis Ballarin. Garain, berriz, Herriko Taldeko Gontzal Sarrigoitiak izango da berriro alkate. Zaldibarko udalbatzarrean lau alderdi daude, baina Bilduk gehiengo osoa du, eta Arantza Baigorri izango da alkate.

Aspaldian asko hitz egin da Elorriori eta PPko Carlos Garciak hartuko duen erabakiari buruz. EAJren jarrera ofiziala, Elorriori zein Euskal Herri mailan, bere ordezkariak bozkatzeko da; Ana Otadui hautagaiak horixe egingo dute berritzi du. PPko prentsa bulegoak dio "alderdiaren postura ofiziala EAJren hautagaitza babestea" dela. Bilduren inguruko iturriek diotenez, EAJgaz izandako batzarretan ez da akordiorik lotu.

Durangon EAJk zortzi zinegotzi ditu; Bilduk sei, PSE-EEK hiru eta Aralarrek bi. Sozialisten botoa da gakoa; Pilar Rios zinegotziak dioenez, "geure hautagaitzari bozkatzeko aukera handiak daude, baina, gaur eta hemen, ezin dut ehunik ehunean segurtatu bihar-ko gure botoa zein izango den".

Abadiñon, Iurretan eta Berri-zen Independienteek eta EAJk gehiengo dute, baina itunek alkatetza kendu diezaiekete.

Amakomunazgoa

Biharko egunaren ondoren, lau hileko epea dago Durangaldeko Amakomunazgoa osatzeko. Bilduk gehiengo du 13 ordezkari; EAJk 11 ditu; Abadiñoko Independentiek bi eta PSE-EEK bat.

Segururik irailean batuko dira udalbatzarrean nork bere hautagaitza aurkeztu eta bozkatzeko. Irabazleak —hau da, lehendakariak— lehentasunezko lehendakariordea aukeratzeko eskuduntza izango du; bigarren lehendakariordea bigarren hautagairik bozkatuena izango da. ■ J. Derteano

IURRETA

Azaleko minbiziari aurre hartzeko kanpaina 18an

Datorren zapatarako, ekainaren 18rako, azaleko minbiziari buruzko prebentzio kanpaina antolatu du Iurretako Udalak, minbiziaren aurkako AECC elkarteagaz batera. Askondo kalean furgoneta informatiboa jarriko dute goizeko 10:00ak eta 14:00ak bitartean. Besteak beste, eguzki egonaldi egokiak egiteko aholkuak eskainiko dituzte; egonaldi desagokiak egiteak eragin ditzakeen ondorioen arris-

kuei buruzko informazioa ere banatuko da. Ume eta gazteei zuzenduriko materiala banatuko dute, gainera: Babes zaitez eguzkitik, dibertigarria da! izeneko liburuxkak banatuko dituzte. Horrez gainera, bertaratzen diren guztiei azaleko azterketak egiteko aukera eskainiko zaie. 2011: Eguzki babesaren eta azaleko minbiziaren kanpainaren baitan dago antolaturik ekimena. ■ A.M.

Egindako ibilbideagatik saria eman dio Iurretako Institutuak Sánchezi



Ikasturte amaierako ekitaldian omendu dute Fede Sánchez; institutuari egindako ekarpena nabarmendu du guraso elkarteak. Ikastetxeari, ezagututako hiru zuzendaritzari eta ikasleei aipamena egin zien Sánchezek. Sariketaren zortzigarren aldia izan da aurtengoa; azken urteetan, Iurretako Institutuagaz lotura izan duten enpresariak eta ikasle ohiak izan dira sarituak. ■ A.M.

MALLABIA

Herri-kirolak eta bertso saioa Gereako jaietan

Gerean Adrian Deunaren jaiak ospatzen dabilta; etzi trontza eta harri-jasotze saioak izango dira

Donien atxa jasota, atzo hasi zituzten Gereako auzoan Adrian Deunaren jaiak. Gereako bertso auzokideak dira jaietako antolatzaileak.

Bihar, 16:30ean, txokolate-jana prestatu dute auzoko umeentzat, eta, 18:00etan, briska txapelketari ekingo diote. Irabazleak 100 euro jasoko ditu.

Domekan egingo dituzte ekitaldirik garrantzitsuenak. 11:00etako mezaren ondoren, Mallabiko Gazte-Alai dantza tal-

deak hainbat dantza eskainiko ditu. Ondoren, Beñat Ugartetxeak eta Etxahun Lekuek bertso saioa eskainiko dute. Eguerdian herri-kirolekin gozatzeko aukera egongo da: Karmele eta Maider trontzan eta, Jon, Izeta III.a eta Ureta harrijasotzen ibiliko dira.

Jaiei amaiera eman aurretik, 18:00etan, asto probak ikusteko aukera egongo da Zubi-Barri, Arta-Beitti, Goizeder eta Maioren eskutik. ■ J.D.

MAÑARIA

Ortugintzari buruzko ikastaroaren azken saioak

Haziei, konpostari, laborantzari, txandatzeari eta izurriteen kontrolari buruz jardun dute

Eguazten honetan eduki dute EHNE sindikatuak antolatu duen ortugintza ekologikoari buruzko ikastaroaren azken aurreko saioa. Hamabostero, hiru orduko saioetan, udaletxean, batu dira parte hartu duten 16 lagunak. Ekaina-

Durangaldeko hainbat herritako eta adinetako 11 lagunek hartu dute parte

Langileek eta zuzendaritzak akordioa sinatu dute Iberican

Hamar egun iraun du grebak. Enpresako zuzendaritza eta langileek akordioa sinatu dute; 2010, 2011 eta 2012rako loteslea izango da. Lehen bi urteetarako KPIa + 0,5 igotzea lortu dute soldate-tan, eta 2012rako KPIa + 0,6. Emakume bat hardun dago, eta errelebo-kontratuan egon da. Enpresak "kaleratu" egin gura izan du, baina, ordezkarien arabera, "lana badago, eta haurdunaldiaren ondoren zelan bueltatu emakumearen erabakiaren arabera izango da". ■ J.D.

ren 22ko saioagaz emango dute Paco Sainzek gidatu duen ortugintza autonomoari buruzko ikastaroa amaitutzat.

Durangaldeko hainbat herritako adin guztietako jendeak hartu du parte, eta haziei, konpostari, laborantzari, txandatzeari eta izurriteen kontrolari buruz egin dituzte, besteak beste, saioak.

Eskura ditugun baliabide naturalak ortuan zelan baliatu eta teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak zelan aprobetxatu ikasi dute, esaterako, Mañari-ko ikastaroan. ■ I.E.

Baqué, Durangoko bihotzean

NAHI AL DUZU IPAD2 BAT IRABAZI?

Erraza duzu Cafés Baqué-rekin. Sartu baque.com gunean eta prestatu dugun lehiaketako 5 galdera errazei erantzuten badiezu, iPad2 baten zozketan parte hartuko duzu. Zorte on!

NAHI AL DUZU?
SARTU
BAQUE.COM
GUNEAN



Cafés Baqué Durangoren bihotz zati bat delako sentimenduaz hazi da. Orain, beste behin ere, taupadaka, zugana hurbildu nahi dugu; horregatik, Turismo Bulegoarekin batera, gure herriari buruzko 36 azukre-zorro dituen bilduma atera dugu. Cafés Baqué dagoen establezimenduetan topatuko dituzu.

durango
TURISMO

Durangaldean labor

Sormen topaketetan izena emateko azkeneko egunak

Ekainaren 28an eta 29an Urduñako aterpetxean gazteentzako sormen topaketak antolatu dituzte Amonakomunazgoko eta eskualdeko udalerrietako euskara zerbitzuek. Hainbat tailerretan parte hartu ahaliko dute: antzerki teknikak, bideogintza, musika, gorputz adierazpena edo irudia, esaterako. "Lagun artean euskaraz ongi pasatu eta sormen teknika berritzaileak ikastea" eskaini dute; doan, gainera.

Landako Eskolara Oinez ekimeneko proba egunak

Aste honetan hainbat ume batu dira eskolara batera joateko, Landako Eskolara Oinez ekimenean. Guraso bolondresen laguntzagaz eta gel-tokietan ikasle berriak batuta egin dute bidea, ibilbide bi jarraituz. Aste honetako proba baloratu eta datorren ikasturtean ekimena finkatu eta zabalduko duten pentsatu beharko dute orain ikastetxe eta udaleko arduradunek.



Erakusketa martxan Andragunean

Erakusketa zabaldu dute Durangon, Andragunean, *Agerikotik ezkutukora* izeneko. Emakumeek ekonomia alorrean egindako ekarpena islatzen du, eta Emakumeak Aniztasunean elkarrekin bultzatu du. Hilaren 30era arte izango da ikusgai, 10:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 20:00etara.

DURANGO

Intxaurren 25. urteurrena ospatzeko egun osoko jaia

Azken hileotan ekitaldi ugari antolatu dituzte; hilaren 18an izango da jai handia

Txikitik handira, Intxaurretik herrira leloa aukeratu dute Intxaurre elkarteak kideek elkartean 25. urteurrena ospatzeko. Azken hileotan hainbat kultura ekitaldi antolatu dituzte, eta hilaren 18an jai nagusia egingo dute, eguerdian hasita.

Datorren zapatuko bazkariko txartelak salgai daude dagoeneko, Intxaurren bertan. Martitzenera arte egongo da aukera aurretiaz erosteko. Egunean bertan ere sarre-batzuk salgai egongo dira. Begetarianoentzako menua gura izanez gero arinago abisatu behar da.

Bazkarirako txartelak hilaren 14ra arte eskuratu ahal izango dira, Intxaurren bertan

Gauean Tribute to RIP, Delirium Tren Ez eta Luhartz izango dira eszenatokia

Zapatuko jaia 12:00ak aldera hasiko da gaztelu puzgarriekin. Herri-kirolak egingo dituzte gero bazkal aurretik. Gerturatzenei jokoetan parte hartzeko deia egin diete. 14:00etan urteurren-eko ekitaldia egingo dute, eta ondoren herri-bazkaria.

Arratsaldean Arantxa eta Pantxok eta Debako elektrotxararak emanaldiak eskainiko dituzte. 21:00etan kontzertuak hasiko dira: Tribute to RIP eta Delirium Tren Ez. Ondoren, erromeria ere egongo da, Luhartzegaz. ■ A. Ugalde.

Durangoren historiaren berri Cafés Baqué azukre zorroetan

18 zorro diseinatu dituzte Durangoren historiako pasarte laburrekin

Durangoren sorrera, 1554ko sutea, 1937ko bonbardaketa, Mikeldiko idoloa, Zezenak Dira, Pablo Pedro Astarloa... Durangoren historian hainbat data, gertakari eta pertsona esanguratsu egon da. Horien gaineko informazio laburragaz azukre zorroak diseinatu ditu Cafés Baqué, Turismo Bulegoagaz elkar-lanean. Laster zabalduko dituzte herriko tabernetan.

Hainbat data, gertakari eta pertsonaren gaineko informazioa dago zorroetan

Kanpainaren helburua Durangoko historiari buruz "jakin-gura eta interesa sustatzea" dela nabarmendu dute ekimenaren arduradunek.

Azukre zorroekin batera, lehiaketa bat ere abiatu dute. Kanpainak www.baquedurango.com izeneko bloga dauka, historiako

Lehiaketa antolatu dute historiari buruzko galderekin. Saria iPad2 bat izango da

datu gehiagoraz. Informazio horri buruz bost galdera luzatzen dituzte, eta ondo erantzuten dituztenen artean iPad2 bat zozketatuko dute urriaren 7an. ■ A. U.



Baqué-ko arduradunak eta alkatea aurkezpenean.

OTXANDIO

Gazte Asanblada pozik urteurrenako jaiagaz

Gazteek "oso positiboki" baloratu dute 10. urteurrenako jaiak izandako erantzuna



120 gazte inguruk parte hartu zuten bazkarian.

Otxandioko Gaztetxeak hamar-kada bete duela ospatzeko, urteurren jaiak ospatu zuten ekainaren 4an. Gazte Asanbladak "oso positiboki" baloratu du ekimena; azaldukoaren arabera, urteurren

Gazte Asanbladakoek herritarren "inplikazioa" nabarmendu gura izan dute

jaia "proiektu baten inflexio puntua" izan da, eta "indarturik" irten dira. Herriaren "inplikazioa" nabarmendu dute: "Herriarrak prest agertu dira laguntzeko, txandakegiteko...", azaldu du Eider Aju-riak. Gazteek gainera, adineko jendea ere ibili zen beharrean.

Bazkarian, 120 gazte inguruk parte hartu zuten; arrialdako manifestazioan, antzera. Ekimen jendetsuena gaueko kontzertuak izan ziren. ■ A.M.

GARAI

Uztailean berriztuko dituzte elkarteak komunak

Udalak esleitu berri du egitasmoa; eraikinaren irisgarritasuna bermatzea dute helburu

Otea-Loran elkarteak komunak konpontzeko lanak uztailearen 11n hasiko dituzte, udaletik azaldu digutenez. Hain zuzen ere, proiektua adjudikatu berri du udalak; Zamakoa enpresak izango du komunak berrizteko ardura.

Proiektuaren aurrekontua 30.874 eurokoa izango da, eta

hortik 5.445 diru-laguntza bidez eskuratu dituzte, Eusko Jaurlaritzari eskaera egin eta gero.

Irisgarritasuna bermatzeko helburua du udalak lan horiek bideratuz. Kultur etxe berriaren eraikinean dago kokatua elkarrekin, eta, modu horretara, eraikina guztiz eraberrituko dute. ■ M.O.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango

Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

BERBAZ >

“Herrien aldeko beharrean gabiltzanean, ez genuke alderdikieriaz jokatu behar”

Datozen urteotan egoera ekonomikoa hobetu eta Amankomunazgoko zerbitzuak gehituko direla uste du Larraurik



Marian Larrauri •

■ Amankomunazgoko lehendakaria azken 16 urteotan

■ EAJko zinegotzia izan da Abadiñon

irten zen Berriz, baina orain momentuan nahiko hartu-eman ona daukagu. Hainbat gauza egiten dituzte gugaz; Agenda 21, adibidez. Berriz Amankomunazgora bueltatu-ko dela uste dut. Elkarlan oso ona daukagu eurekin, belodromoagaz, adibidez.

“Berrizko Udalagaz hartu-eman onak dauzkagu; berriro sartuko dela uste dut”

Zapatu honetan udalbatza berriak osotu eta gero, lau hileko epea egongo da Amankomunazgo berria eratzeke. Ordura arte funtziotan dabil beharrean Marian Larrauri. Hamasei urte egin ditu lehendakari.

Arraroa izango da zuretzako horrenbeste urte eta gero Amankomunazgoa uztea.

Alde batetik, desiatzen nago, lasaitasuna hartzeko, eta zer pasatuko den ikusteko jakingura daukat. Baina, beste aldetik, pentsatzen dut: “Zelan ez naiz etorriko gehiago Amankomunazgora?”. Nire etxea legez da. Ni hona etorri nintzanean diru barik zeuden, desastrea zen...

Zelakoa zen egoera?

Sasoi hartan beste krisi gogor bat zegoen, eta udaletxeek-eta ez zeukaten dirurik; ez zituzten kuotak ordaintzen. Amankomunazgoak hainbat zor zituen; aurrekontuko dirua beste zor zegoen. Alde horretatik, orain momentuan egoera onean gaude; ez daukagu zorrik bankuekin, eta hurren-

“Nire ilusioa beti izan da gizarte zerbitzu guztiak eraikin batean batzea”

go inbertsioetarako diru apur bat badaukagu gordeta. Badago inbertsio bat hor, ezin izan dudana aurrera atera eta hurrengo datorrenak egitea gustatuko litzaidakeena.

Zein?

Nire ilusioa beti izan da gizarte zerbitzu guztiak eraikin batean batzea. Durangon Galtzaretan eraikina txiki geratu da, eta Drogomenpekotasun Zerbitzua eta Hirugarren Adinerako Saila atera egin behar izan ditugu bertatik. Galtzaretan bertan, lanerako baldintzak ez dira onenak eta zerbitzu denak batzea ona izango litzateke koordinazio hobea egiteko. Durangoko Udalagaz berba egin dugu, eta Uribarri egoitza zena leku egokia izan daiteke. Proiektu oso handia da hori, eta horretarako laguntza eko-

nomikoa ere behar-beharrezko izango dugu.

Amankomunazgoak indartu egin beharko luke bere funtzionamendua? Batzuk eraginkorra ez izatea kritikatu izan dute.

Hauteskunde garaian beti agertzen da kritika hori; Amankomunazgoak zerbitzu gehiago kudeatu beharko litzukeela esaten dute. Geroago eta gehiago kudeatzen ditu, eta datozen urteotan, segurutik, gehiago sortuko dira. Gauzak egiten dira; beharbada, nire akatsa izan da prentsara komunikatzeko zalea ez naizela izan. Behargintza zabaldu genuenean, adibidez, ez genuen inaugurazio ekitaldirik egin, eta hori akatsa izan zela pentsatzen dut. Sartu nintzanean hiru zerbitzu egon ziren, eta orain asko dauzkagu. Trinketea zabaldu zen, belodro-

moan eta atletismo pistan beharrak egin dira eta topera dabilta. Behargintza eta formazio zentroa ere hor daude. Zerbitzu sozialetan ere hazi egin gara; zaborren birziklapena, zaborrak batzeko sistema berria... hainbat gauza egin dira. Batzuek beste planteamentu batzuk eduki ditzakete, baina ez da hain erraza. Amankomunazgoak berez ez dauka konpetentziarik; udalen konpetentziak kudeatu ditzake, eurek utziz gero. Udalei asko kostatzen zaie konpetentzia horiek kudeatzeko lana Amankomunazgoari uztea. Kontua ez da hain erraza.

Berrizko Udalak Amankomunazgotik irtetea erabaki zuen bere garaian. Zelan baloratzen duzu gertatutakoa?

Zaborraren inguruko desadostasunak tartean zeudelako

“Amankomunazgoak geroago eta zerbitzu gehiago kudeatzen ditu; beharbada, nire akatsa prentsara komunikatzeko oso zale ez izatea da”

Zelakoa da herrien eta alderdien arteko hartu-emana Amankomunazgoan?

Nik udalekin, berdin dit zer kolorekoak diren, harreman ona daukat. Niko Elorrioko alkateagaz, David Atxondokogaz... adibidez, oso ondo konpontzen naiz, eta elkarrekin gaudenean ahaztu egiten zait ez direla nire alderdikoak. Gero momentu puntualetan, aurrekontuen eztabaidan, adibidez, bakoitza bere lekuan dago; orduan agertzen da politika, eta normala da. Baina herrirako gauza onak egin guran gabiltzanean, ez genuke alderdikieriaz jokatu beharko.

Zer gomendio emango zenioke hurrengo lehendakariari?

Ni nor naiz ba gomendioak emateko? Pentsatuta eta amaitu barik utzi ditudan asmoen berri emango diot, eta gero berak gura duena egingo du. Datorrena datorrela, izan EAJkoa edo Bildukoa, lan egiteko gogoaz eta asmo onekin etorriko da. Ez naiz inor gomendioak emateko. Hori bai: behar duen guztietan, hor egongo naiz, laguntzeko. ■ A.Ugalde

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Apatako udalari, kexaz

Orain dela pare bat aste igerilekuetako taberna adjudikatu zuten. Zein izan da gure sorpresa: kanpoko jendea-ri eman diotela.

Ez gaude bat ere ados, Apatan gazte asko gaude eta horietako asko langabezia daude.

Eskaera bi egon dira aurten udalean, bat herrikoek aurkeztu dute eta bestea kanpotar bik. Logikoena izango litzateke herriko jendea ematea eta herrian bertan lan aukerak ematea (hori da beraien leloa behintzat), baina hau ez dela betetzen konturatu gara. Udaletxeak ateratako bandoan ez zen agertzen herrikoek aukera gehiago dute-nik edo pribilegioa dutenik, baina, nire ustez, “de sentido comun” da hau, horrela ulertzea, zeren eta, bestela, urtero eskaintza piloa egongo ziren kanpotarrek eskatuta. Eta, gainera, aurten nik alkatearekin hitz eginda lortu nuen bi urteko kontratua egitea; zertarako, eta azkenean kanpoko-ek erraztasunak emateko....

Udalarekin egin dugu berba eta beraien errua dela aitortu dute, bandoan eskatutakoa agertzen ez zelako, baina ez dute ezer egin egoera konpondu ahal izateko.

Alkatearekin hitz egiten egon nintzen, eta diru kontua ez zela esan zigun; hau da, udalak ez duela aukera hau ematen dirua irabazteko. Ba, barkatu, baina ez da izan gure antzemateko era, zeren aurten horretan bakarrik pentsatu dute.

Laburpen bezala, Apatako udalak lan eskaintzak ditu baina ikusi beharrekoa ikusita kanpoko jendea prestatzen hasi dadila, zeren eta herrikoek baino aukera gehiago izango dute.

Herriari eskatzen diodana gure eskubideengatik borrokatzea; hau da: lan eskaera hau herriko jendea dagokio eta ez kanpoko-ek. Beraz, gustatuko litzaidake baten batek honen inguruan kexarik badu udaletxera joatea eta bertan azalaraztea.

Alazne Campañ

Jose Miguel Barandiaran egoitzari eskertza

Idatzi honen bitartez, Jose Migel Barandiaran egoitzako langileoi esker ona luzatu nahi dizuet. Nire ama, urte eta erdian, maiatzaren 30eko astelehenean bere heriotza gertatu arte, adeitasunez zainduta eduki duzue zuen jatortasuna agertuz.

Ez naiz inoiz ere zuen izenaz ahaztuko, ez zuen lan egiteko era txalogarriaz, ezta ere gure nagusiei ematen diezuen maitasunaz.

Jarraitu ezazue horrela. Eskerrik asko, langile guztiei.

Nieves Cortes - Durango

Garaiko herriari eskerrak

Benetan pozgarria izan da guretzat hauteskunde hauetan azken lau urteetan burututako lanari eman diozuen berronespena. Zuen adostasun horrek indar berriak ematen dizkigu gure Garaiko herri txiki honetan XXI. mendeak planteatzen dituen erronkak aurrera eramateko. Pausuz pausu, baina atse-denik hartu gabe, jarraituko dugu lanean.

Lanean denon herria eraikitzen, bai botoa eman duzuenen udala eta baita beste aukera batzuk hautatu dituzuenen udala ere, alkateak herritar guztiena izan behar duela pentsatzen dugulako. Herri hau denok osatzen dugu; adin, pentsamolde, ideologia eta beste berezitasun pertsonalak ditugun gazte, nagusi, gizon eta emakume guztiok.

Herriko etxea denon etxea izan behar da, eta horregatik argi dugu aurretik dugun legealdi honetan ere gure herriaren alde lanean prest dauden guztientzat bertako ateak zabalik daudela. Jar dezagun gure Garai etorkizunaren bidean.

Herriko Taldea

Sei hankako mahaia



Dani Maeztu Aralar

Ireki bidea

Lelo hori ibili du Aralarrek hauteskunde kanpainan: ezker-ri, euskarari, bakeari, gazteriarri, ekologismoari eta abarri bidea irekitzea beharrezko dela aldarrikatu dugu. Euskal gizarteak alor askotan bidea egin du, beste batzuetan bidea egiten hasi da, eta etorkizunean bidea egiten jarraituko du. Bide horretan egon diren eta egon dauden oztopo nabarmenenak erditik kentzeko, Aralarrek bere esfortzua eta kemenaj jarri duela deritzogu, eta bidea irekitzen eta bidea egiten segitzeko lanean jarraitzeko asmoa dugula zuenganatzen dut.

Hauteskundeetako emaitzei izenburu bi jarriko nizkioke. Lehenengoa: “Durangon, ezkerreko abertzaletasunak bidea irekitzen jarraitzen du”. EAJk, frankismoaz geroztik, gehiengoa izan du Durangon. Lehenengo aldiz, ezkerrekoak eta abertzaleak garenok EAJk baino bozka gehiago lortu dugu. Asmatu zein izan daitekeen bidearen hurrengo mugarria: etorkizuneko Durango gorria, morea eta berdea izango den esperantza dugu.

“Ezkerreko bidean darraigula eta bakegintza kalera heldu dela erakusteko garaia da”

Eta bigarren goiburua: “Bakegintzan urratsak ematen jarraitzeko konfiantzazko botoa eman digu gizarteak”. Bakegintza ez da eliteetan gauzatuko, kalera ekarri behar dugu, eta kaletarren artean egin behar dugu: aniztasuna errespetatu; arerio politikoa errespetatu, etsaitzat ez hartuz. Proiektu politikoaren alde lan egin behar dugu, gizarte ereduaren erreferentziat hartuz eta aurrean daukaguna errespetatuz.

Bihar Euskal Herriko udalak eratuko dira. Durangaldean ere izango da aldaketarik. Aukera ederra dugu erakusteko garai berriak datozela; ezkerri bidea irekitzen jarraitzen dugula eta bakegintza kalera heldu dela erakusteko garaia da.

CARLOS; THE SPANISH HERO



Aiert Zubigarai - Elorrio

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoaanboto
durangaldeko astekariaAnboto komunikabideak Elkarte
2011ko ekainaren 10a - 10. urtea - 419 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazio burua:

Itziar Belar

Administrazioa:

Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde, Aritz Maldonado.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Ertza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta

Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

ANTZERKIA > JAIALDIA

Euskal Herriko antzerki taldeen lanaren erakusle izango dira, ekainaren 17tik 19ra, bosgarren urtez, lurretako plaza eta kaleak. “2007an hasi ginenean ez genekien abentura honek nora eroango gintuen, eta pozgarria da bost urteren ondoren hasitako lanari jarraipena emateko gogotsu egotea”, esan zuen Iñaki Totorikaguena jarduneko alkateak aurkezpenean.

Euskal Herrian eginiko antzerkiaren aniztasuna islatzen duen jaialdia

“Lehenengo urteetan jaialdia antolatzen Mikel Deuna elkarteagaz hainbeste lagundu zigun Mari Tere Zugaza-Artaza” hartu zuen ekitaldian alkateak gogoan.

Totorikaguenaren aldamean, jaialdiaren barruan *Vuelta y vuelta* obra eskainiko duen Trapu Zaharra taldeko Santi Ugalde kidea eta jaialdiaren dinamizatzaile lana burutzen duen Deabru Beltzak taldeko Argitxu zuzendaria izan ziren aurkezpenean.

Orain pare bat urte *El pisito* kale antzerkiagaz lurretara etorri ziren eguna ondo gogoratzen duela aipatu zuen Santi Ugalde antzezle ezagunak: “lurretara gentozen lehenengo aldia zen, eta harrigarria egin zitzaigun hemen topatu genuen ikuslegoa: oso anitza, eta ikusteko gogotsu zegoena”. Ugalderen berbetan, “oso pozgarria da halako antzerki jaialdi bat temati mantentzen duen herrian antzez-

Bost ikuskizun kaleko antzerki jaialdiaren bosgarren ediziorako

Eguaztenean aurkeztu zuten ekainaren 17tik 19ra lurretara bost kale antzerki ikuskizun dakartzan **V. Kalez Kale** jaialdia. Kukubiltxo, Pikor, Trapu Zaharra, Ganso & Cia eta Madiber Magoa gonbidatu dituzte



Bosgarren urtez, kultura kalera aterako dute lurretako Kalez Kale-n

lan berria aurkeztera etortzea”. Trapu Zaharra antzerki taldeak Kalez Kalea aurtan dakarrena “krisieko ekonomikoaren eragina jasaten duten komertzial biren istorioa da, gizarte merkantilista eta

kontsumistari umoretik kritika egiten diona”, Ugaldek dioenez.

Trapu Zaharra, Ganso & Cia, Kukubiltxo, Madiber magoa eta Pikor taldeen lanak izango dira lurretan gozagai. ■ I.E.

Egitaraua:

Ekainaren 17an

- Kukubiltxoren Kukubel, 17:30ean San Migel plazan
- Pikor taldearen Ellas bailan solas, 21:00etan, Dantzari plazan

Ekainaren 18an

- Madiber magoa, 17:30ean, Dantzari plazan
- Trapu Zaharra taldearen Vuelta & Vuelta, 21:00etan, Askondon

Ekainaren 19an

- Ganso & Cia. taldearen Mediopelo, 13:00etan, Dantzari plazan

Ekainaren 21ean

- Umeen danborrada, 11:30ean
- Musika emanaldia, 19:00etan



MUSIKA> LEHIAKETA

Haur Kantari Txapelketaren Hazparneko finalera, bihar

Domekan Bilbon jokatu zen Bizkaiko finalean hainbat sari jaso zituzten Durangoko neskek



Joan den domeka eguerdian, Bilboko Euskalduna jauregian batutako 600 lagunren aurrean kantatu zuten argazkiko Durangoko Xaramel taldeko neskek. Haur Kantari Txapelketaren finala izan zen joan zen ekainaren 5ekoa, eta zortzi kopa eta bi txapel irabazita bueltatu ziren bertatik gazte durangarrak.

Besteak beste, ahotsik onenen txapela jaso zuten Durangoko Orfeoi Txikiaren inguruan sorturiko Xaramel taldeko zortzi gazteek, domekako finalean.

Hogeita hamasei taldek hartu zuten domekako Bilboko finalean parte

Taldeko saileko sariez gainera, baina, Durangoko taldeko kideek binaka zein banaka egin-dako lana ere saritu zuten Haur Kantari Txapelketako epaimahaiak: binakako txapela jantzi zuten, esaterako, taldeko kide

diren Amaiur eta Maitek. Gainera, *a capella* sailean hirugarren saria, pianista onenarena edo sor-kuntzaren sari berezia ere jaso zituzten argazkiko neskek.

Bizkaiko 36 taldek hartu zuten domekako finalean parte, eta epaimahaiak bertan hautatutako lau taldek jardungo dute bihar Hazparnen jokatu duten Euskal Herriko finalean; Durangoko Xaramel taldeak ere bai. Hazparnen egingo dute Euskal Herriko Haur Kantari Txapelketaren azkeneko saioa, Euskal Herriko finala. ■ I.E.

BERTSOLARITZA> TXAPELKETA

Txaber Altube gaztea Bizkaiko txapeldun

Eskolarteko Bertsolari Txapelketako 14 urtez azpikoen txapela jantzi du abadiñarrak, Bilbon jokatu zuten finalean



Joan zen bariku goizean, Bilbon jokatu zuten Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Gazteen Txapelketaren finala. Hamalau urtez azpikoen saileko txapela ekarri zuen bertatik Txaber Altube gazteak Abadiñora. 14 eta 18 urte bitartekoen sailean jardun zuen Aitor Bizkarrrak, berriz, laugarren egin zuen.

Bilboko Indautxu auzoko El Carmen aretoan jokatu zuten, joan zen barikuan, Bizkaiko Bertsolari Gazteen Txapelketako finala. Txapelketaren aurreko saioetan sailkatzea lortu duten hamalau bertsolarik jardun zuten. ■ I.E.

Aitor Bizkarra laugarren sailkatu zen 14 eta 18 urte bitartekoetan

GEURE DURANGALDEA

Jose Julián Bakedano
Zinegilea



Matta Euskadin

Azaroaren 11n beteko da mendea euskaldun jatorriko Matta margolaria jaio zela. Primitibisten, surrealisten eta Ipar Ameriketako espresionista abstraktuen inguruan jardun zuen gizon polifazetiko honek jaio zen herrialdean, Txilen, ikasi zuen arkitektura.

Hamarkada honetan artista honi buruz antolaturiko atzerabegirako osoena da *Matta, 1911-2011*. Bilboko Arte Ederren Museo-ko erakusketan, 1938 eta 1999 bitarteko lanak daude bilduta.

Bere euskal jatorriaz oso harro agertu zen beti Roberto Matta Echaurren. Horrela adierazi zuen bere alargunak museoan: "Etxera bueltatu da Roberto. Beti egiten zuen berba bere sustrai euskaldunez, eta beti sentitu zen oso hemengoa". Frantsez nazionalizatu zen 1969an Matta, eta bere semeetako bat Ramuntcho deitu zuen, ortografia frantsez-euskaldunez.

Artistaren familiak ekarritakoak dira erakusketako obretariko asko, eta aurretik ia sekula erakutsi bakoak dira zenbait. "Bizitzaren amaierara arte egin zuen lan: zuri-beltzeko muralak marrazten jarraitzen zuen 90 urte zeuzkala", azaldu du Germana Mattak.

André Breton eta Salvador Dalíren surrealismoak erakarri zuen Matta 1937an, eta urte bi geroago New Yorkera abiatu zen. Han, Marcel Duchamp eta Yves Tanguy-rekin batera elkartu zuen Europako abangardia Jackson Pollock, Robert Motherwell edo Arshile Gorky lako gazteen lanarekin. Eta horrela sortu zuten gero espresionismo abstraktu amerikarra deitu dutena.

Bere konpromiso soziopolitikoak Mattaren obra eta bizitza guztian izan zuen eragina, eta 1968ko Parisko mugimendu kontraktalaren partaide aktiboenetarikoa izan zen. Konpromiso sozial hori areagotu egin zitzaion urteekin, eta harreman politiko eta intelektuala izan zuen, besteak beste, Kubako iraultzagaz, Txileko Allende presidenteagaz edo Angolako askapen mugimenduagaz. Egocera sozialak zein herriaren "egitura emozionalak" islatu zituen bere muraletan. Bere obran nagusi izan ziren beti artearen ikuskera poetikoa, eta oihalaren eta kolorearen erabilera berezia.

**Erredakzioan itzulia*

LITERATURA> EKITALDIA

Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sari banaketa

Aitor Albistur errenteriarren lanak saritu ditu, besteak beste, Julene Azpeitia literatur lehiaketako epaimahaiak

Ekainaren 5ean, San Agustin kulturean egin zuten Durangoko Udalak antolatzen duen Julene Azpeitia literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia.

Aitor Albistur errenteriarrek jaso zituen hamazortzi urtez gorakoen bertsoen zein ipuinen ataleko sari nagusiak: Albisturren *Edanak edan* bertso sorta saritu zuen epaimahaiak, eta egile bera-
ren *Irla* izeneko ipuina ere bai.

Helduek aurkezturiko olerkien atalean ez dute saririk banatu aurretik, eta hutsik geratu da 17-18 urte bitarteko poesia saria ere. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako sailean, Landako Eskolako Arrate Negralen *Zuzarena* izeneko poemasari-tu du epaimahaiak, eta Kurutzia-ga Ikastolako Igor Uruburu gaztearen *Ez naiz gai* Bigarren Hezkuntzako atalean. ■ I.E.

V. KALEZ-KALE		TURRETAN		
Euskeraz	Gaztekeraz	Euskeraz	Gaztekeraz	
17an, 17:30 KUKUBILTXO "Kukubel" San Migel plazan	17an, 21:00 PIKOR "Ellas bailan solas" Dantzarin	18an, 17:30 MADIBER MAGOA Dantzarin	18an, 21:00 TRAPU ZAHARRA "Vuelta&Vuelta" Askondon	19an, 13:00 GANSO "Mediopelo" Dantzarin

Sarrerak dohainik

Oporrei Begira



 anboto

Babesleak:



BERRIZKO
UDALA



Elorrioko
udala



GARAIKO
UDALA



MALLABIKO
UDALA



OTXANDIOKO
UDALA



Karabana eta furgonetekin datozenentzako guneak

Autokarabanan edo furgonetan bidaiatzeko tradizio luzea duten herrialdeen eredua jarraituta dihardute ibilgailuentzako guneak atontzen hemen ere

Besteak beste, Hondarribian, Bilbon edo Lekeition prestatu dituzte halako guneak

Gurpilen gaineko etxeotan bidaiatu eta ostatu hartzen dutenentzat pentsatutakoak dira autokarabana edo furgonetan aparkalekuak. Deskantsurako, bidean topatutako gustuko lekua gozatzeko eta bertan eskainitako zerbitzuak baliatzeko aukera dira guneok. Ondoen hornitutako guneetan argindarra, iturriak, urzikinen tangak husteko zerbitzua, komunak, garbigailuak eta duxak eskaintzen dituzte.

Azkeneko urteetan, furgonetan eta autokarabanan bidaiatzera ohi-tuago dauden herrialdeetako eredu hartuta, Euskal Herrian ere gero eta udal gehiagok ekiten diote bidaiari horien geldiuneak hartzeko leku aproposak atontzeari: Bilbon, Lekeition edo Hondarribian prestatu dituzte, esaterako, halako guneak. Batez ere, lekua horretarako bereziki prestatu barik zegoenean ere erabiltzaileek eurek hautatuko kostako lekuetan dihardute udalek

modu horretako guneak prestatzen. Hondarribian, portuaren eta kirol-gunearen artean, eta Kobetamendi gainean, Bizkaiko hiriburuan. Bilboko kasuan, apiriletik urrira arteko hilabeteetan izaten da 72 plaza dauzkan gunea erabilgarri. Hamabost euro kobratzen dute Bilbokoan eguneko. Europako herrialdeetatik datozen bisitariek, eta geroago eta gehiago inguruko herrialdeetakoek ere baliatzen dituzte guneok.

Udako hileetarako prest dauzkate herri askotan karabana eta furgonetentzako aparkaleku berriok

Eguneko hamabost euro ordaindu behar da Bilboko aparkalekuan, esaterako

CALIFORNIA CONFORTLINE



Oso sukalde erabilgarria dakar California Confortline modeloak: sute bi eta 42 litroko hozkailua dakartza, besteak beste, sukaldeak. Gainera, hiru zonalde bereiziko klimatizadorea ere eskaintzen du Volkswagen-en modelo honek, beste hainbat baliabideren artean.

CALIFORNIA BEACH



Gauak igarotzeko eta intimitatea mantentzeko kortina bilgarriak dakartza, besteak beste, Volkswagen-en California Beach modeloak. Mahaia albo batean gordeta muntatzen den 1,55 x 2,01 metroko ohea ere eskaintzen du California Beach furgonetak.



CALIFORNIA CONFORTLINE

ALLUITZ MOTOR, S.A.



Comercial AUDI
Estanislao Labairu, 3
Telf.: 94 621 73 27
Fax: 94 620 10 75
48200 DURANGO



Comercial VW / Taller
Alluitz, z/g.
Telf.: 94 620 20 04
Fax: 94 620 09 98
48200 DURANGO



CALIFORNIA BEACH

Opor egunak naturagaz hartu-emanen igarotzeko

Ingurune paregabeak gozatzeko aukera da askorentzat opor egunetan kanpinean ostatu hartzea. Euskal Herrian ere eskaintza oparoa daukagu.



Eguneroko bizitza herri edo hiri-guneetan egiten dutenentzako aukera polita izaten da opor egunetan ingurumenagaz hartu-eman zuzena ahalbidetzen duen turismo mota hau. Opor egunak egunerokotik apartekoa den erritmo batean, haizetara eta naturagaz hartu-eman zuzenean bizitzeko hautua askok egiten dute uda sasoiari.

Familia osoarentzat, baina, batez ere, etxeko txikienentzat abentura ederra izaten da Kanpinean egitea oporretako egonaldia. Kanpin denda muntatzen eta naturagaz harremanean olgatu ahal izateaz asko gozatzen dute etxeko txikiak.

Bisitariak bertan igarotzen dituzten egunetan erosotasun eta zerbitzu osoenak izan ditzaten lan handia egiten dute kanpinetako arduradunek. Eskaintza ikaragarri zabala izaten da gaur egun; kanpatzeko gunea ez eze, bungalow etxeak alokatzeko zein taldeentza-

Oporrak egunerokotik apartekoa den erritmo batean bizitzeko aukera

Eskaintza zabala dago gaur egun; kanpatzeko gunea, bungalow-ak, talde handientzako logelak...

ko literadun logelak alokatzeko aukera ere eskaintzen dute, besteak beste, Euskal Herriko kanpinetan. Hamabostaldia edo bakoitzak aukeran daukan denbora igarotzeko

beharrezko guztiak eskaintzen dituzte kanpinetan, eta aisialdirako deneriko aukerak ere bai: kokatuta dauden lekuaren, klimaren eta geografaren arabera, askotariko kirol eta aisialdirako aukerak eskaintzen dituzte; kanpina urtegi baten ondoren dagoela aprobetxatuta uretako kirolak egiteko aukera, edo mendialdean zaldian ibiltzeko erraztasunak ematea, esaterako.

Ume txikiekin, batez ere autoan kilometro asko egiterik gura ez dutenentzat, Euskal Herriaren aniztasuna gozatzeko eskaintza daukagu kanpin askotan.

Aukerak Nafarroan

Hirugarren urtez jarraian, turismoaren sustapen eta harrera-kanpaina abiatu dute, esaterako, Nafarroan: *Nafarroak dohainik hartzen zaitu* du kanpainak izena, eta deskontu handiak eskaintzen dizkie bisitariei. Kanpainagaz bat egiten duen ostaturen batean gutxienez bi gau ematen dituzten bisitariak eskura ditzakete %20 inguruko deskontu horiek. Kanpainak eskaintzen dituen aukeren inguruko informazio guztia www.navarra.es helbidean dago

eskura. Aste Santuan, zubietan eta uztailaren 15etik irailaren 15era bitarteko egunetan dago aipaturiko ekimen hau indarrean.

Gesalatz ibarrean dagoen Aritzaleku kanpinaren arduradunen berbetan jaso dugunez, batez ere, orain bi-hiru urtetik igarri dute Nafarroako eskualde horretan gero eta bizkaitar gehiagok aukeratzen duela herrialde hura udako egonaldietarako. Azpimarratu dugutenez, udara begira jaso dituzten erreserba gehienak bisitari bizkaitarrenak dira. Orain arte, 1998an zabaldu zutenean, gipuzkoarrak eta nafarrak izan dituzte bisitari gehienak.

Hirugarren urtez, turismoaren sustapenerako kanpaina abiatu dute Nafarroan

Mila eta berrehun lagunentzat prestatua dago Aritzaleku kanpina, eta, azaldu dugutenez, azken urteetan, batez ere, abuztuaren antolatutako triatlóiaren eraginez, "110eko okupazioa" izan dute. Udari begira, hainbat bisitari egin du Aritzalekun dagoeneko erreserba, eta hasi dira uda giroa hurreratzeko dabilela igaritzen. Kanpin guztietan legez, eguraldiari asko begiratzen diote, eta oraingoz asko lagundu ez duen arren, igerilekua zabaldu dute dagoeneko.

Kirolzaleentzako aukera aberatsa



Kanpinaren esparruaren barruan dagoen Allosko urtegi-ko uretan, besteak beste, windsurfa eta bela arina egiteko aukera eskaintzen dute Gesalatz ibarreko Aritzalekun. Kanpalekuaren aldameneko urtegiaren eskaintzen du Nafarroako bela eskolak uretako kirolean jarduteko aukera.

Horrez gainera, uztailaren 2 eta 3rako kanpinetako arduradunek triatlói antolatzen dute urtero. Urtegiaren inguruan eta eskualdean zehar jarduten dute parte-hartzaileek, eta kirol hitzordu horrek ehunka bisitari erakartzen ditu Nafarroako erdialdeko eskualde horretara.

Udan ere, euskaraz bizitzeko aukerak sortzen!

Berbaro Udalekuak 2011
Gozatu euskaraz!

Txikitan olgetan
Handitan benetan
Orain eta gero
Euskaraz berbetan



BUNGALOWAK ALOKAIRUAN



Aritzaleku kanpina

San Pedro z/g. LERATE (Nafarroa)

Tfnoa. 948 395 064 / 686 699 133

e-posta: info@aritzaleku.com

www.aritzaleku.com



Allosko urtegiaren hainbat jardura egin ahal izanen dituzu, esaterako, bela. Horretan ikasi edo aritu nahi baduzu, Nafarroako Bela Eskolaren zerbitzuak izanen dituzu.

BAUTISTAN BI LAGUNENTZAKO EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARITZEN JARRAITZEN DUGU **OPARIA ZUZENEAN**

1.900 EUROKO GUTXIENeko EROSKETAGATIK

Bautistan inoiz ez genizuke ezer oparituko
lehenago geuk probatu barik.
Zure lekuan geu joan gara sasoiko lehenengo itsas bidaiara:
BARTZELONA-TOULON-SARDINIA-BARTZELONA
eta ziurtatu egiten dizugu esperientzia
ZORAGARRIA izan dela
ZATOK ETA FROGATU EGIZU
Jon Ugarte
Bautista altzariak eta dekorazioa


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

IBERO cruceros-en laguntzarekin:



Eguzki sartzea. Sardiniatik irteten.
2011ko apirilaren 2a. 20:00.



Popako haurtzaindegia. Bartzelonatik irteten.
2011ko martxoaren 31. 18:00.

Zurekin ospatu gura dugu gura 40. urteurrena eta harritu egin gura zaitugu.

**EHUNKA ITSAS BIDAIA OPARI, BI LAGUNENTZAKO
BETIDANIK BEREIZTU IZAN GAITUEN ARGITASUNAREKIN.**

www.bautistamuebles.com

 **94 672 77 00**

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3. irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

Itsas bidaia kopuru jakin bat amaitu artekok eskaintza. Instalakuntza libreko elektrotresnen erosketak ez da baliagarria eskaintza honetarako.



"Ilusioa ezinbestekoa da bidaia on bat egiteko"

Apirilaren hasieran Bagoaz izeneko bidaia agentzia zabaldu zuen Ander Cimasek Traña-Matienan. Bidaia bereziak proposatzen ditu



Idea zehatzategaz datoz zuregana?

Ez pentsatu. Beharbada izango da nik jendeari nire planteamentuaren berri eman diodalako eta hori herrian zabaldu delako, baina asko etorri zaizkit esanez; "3.000 euro dauzkat. Zer bestelako bidaia egin dezaket honekin? Zer egin dezaket irlez aparte?"

Bidaia lekuetan turismoan behar egiten dutenekin planifikatzen ditut bidaiak

Zer esaten diezu?

Berdin dela 300, 600 edo 3.000 euro edukitzea. Diru horregaz egin daitekeen onena bilatuko dugula. Jende askok nire esperientzia eskatzen dit; horren bila dabilta. Abadiñon bidaien gaineko hitzaldiak antolatu zituztenean konturatu nintzen batzuei euren aldetik bidaiatzea gustatzen zaiela; beste batzuek dena lotuta gura dute, eta beste batzuek munduan gertatzen dena ikusi gura dute, jakingura handia dago hor. Bidaiatzea niretzako unibertsitateko karrera bat modukoa da; asko ikasten da, jendea buruz, kulturei buruz... oso garrantzitsua da bidaiatzea.

Zer behar du bidaia batek ona izateko?

Norberak ilusioa edukitzea. Kitto. Imaginatu: leku batera joan eta naturatik gertu dagoelako logelan animaliak daude. Zer egingo duzu, agentziara joan kexatzera? Badakizu hori gertatu daitekeela. Jakin behar duzu nora zoazen eta zure jarrera zabaldu behar duzu. Latinoamerikara bazoaz, "ahorita te traigo" esan eta "ahorita" hiru egun dira. Pazientzia eduki behar duzu, horrela delako. Ez daitezela oporrak hondatu horregatik. "Kotxea apurtu da eta ez gara heldu txangora"; beno, baina hamar egunerako zaude bertan, eta beste bederatzia primerakoak izan dira. Kotxea konpontzea beharbada ez da erreza izango herrialdearen arabera. Ilusioa baduzu, traba horiek gaindituko dituzu. Lekuak lagundu ahal dizu, baina zeu zara garrantzitsua.

Bidaiak antolatzeko sarri erabiltzen da Internet. Zer gomendio emango zenuke?

Informazio asko dago, eta galtzea oso erraza da. Nire webgunean ahalegindu naiz ahalik eta zehatzen kontatzen kontatu gura dudana. Telefonoa ipini dut gero informazio guztien azpian. Telefonoz berba egitea edo bertatik pasatzea da azkenean onena. Konfiantza. Konturatzen nabil, gainera, Interneteko atari batzuk egoera aprobetxatu dutela. Agentziek baino prezio merkeagoak ipintzen hasi ziren, eta orain jendeak Internetera asko jotzen duenez, batzuetan, agentzietan baino garestiago saltzen dituzte bidaiak. Prezioak kontrastatzeko onena agentzia batera deitu eta kontsultatzea da; ez da ezer kostatzen.

Jende asko ideia zehatz barik etortzen da opor berezi batzuen bila

Zelan sortu zitzaizun bidaia agentzia zabalteko aukera?

Agentzia zabaldu dut agentziak ez zaizkidalako gustatzen. Turismoa ikasi nuen, eta kanpoan ibili naiz denbora askoan lanean. Latinoamerika bereziki nahiko ondo ezagutu dut, eta badakit leku batzuk libre joateko ondo daudela; beste batzuetan komeni da dena lotuta edukitzea. Venezuela, Peru edo Argentina lako herrietan turismo arloan lan egiten duen jendea ezagutzen dut, eta hartueman horien bitartez bestelako bidaiak antolatu guran zabaldu dut agentzia.

Bestelako bidaiak diozu. Zelakoak?

Perura bazoaz, gauza gehiago beharbada ez, baina badakizu Matxupitxu ikusi behar duzula. Ni joan nintzenean 50 pertsonako autobu-

sean joan nintzen, gida batekin; souvenir-en 50 dendatik pasatu eta Matxupitxu ordu bitan ikusi nuen! Eta asko ordainduta! Hain komertziala izan barik, beste modu batean bidaiatu daiteke; gida bertako arte katedratiko bat izanda, erloju barik azalpenak entzuten... Eta ez du zertan garestiagoa izan! Agentzia gehienetan katalogoak erakusten dizkizute; hori dago eta kitto. Nik bezeroa eta bion artean prestatu gura ditut bidaiak.

Zer eskatzen du jendeak?

Oparitarako, bainuetxeetarako eta nekazaritza-ismoetarako bonoek oso ondo funtzionatzen dute. Udara begira, Benidorm, Tenerife eta Lanzarote egin ditut, baina asko eskatzen dute, adibidez, Grezia, Turkia, Estatu Batuak, Venezuela, Kuba...

Bisitatu beharreko herria: Venezuela

"Venezuelak ez dauka gantxorik, eta ez dakit zergatik den, politikagatik edo. Nik jendea asko gomendatzen diot herrialde hori; naturazaleentzat itzela da, oso leku ederra eta koloretsua. Latinoamerikan Argentina eta Peru kultura arlotik oso aberatsak dira; Venezuela, berriz, bere paisaiengatik nabarmenduko nuke. Leku asko

paradisiakoak dira, eta ez da oso garestia bertara gerturatzea. Salto del Angel izeneko ur-jauzia, adibidez, munduko ur-jauzirik garaiena da, eta bere azpian hamaka batean lo egitea izugarritzko esperientzia da. Natura bertatik bertara ezagutzeko aukera asko daude Venezuelan, eta horrek ez dauka preziorik".





GORA GORA kafetegi-delicatessen

Arriluzea 2 behea-Tabira
Tel.: 94 681 13 84

Udarekin batera dastatu gure
sorbeteak, zuku bereziak, kafe
bereziak, razioak, pintxoak...
Eta igandetan gure raba bereziak!
ETORRI ZAITEZ GURERA!



KAFE KANTOI

Learreta-Markina kalea
BERRIZ

Ingurune paregabeen terraza eder
baten gerizpean zein eguzkitan
egoteko. Aldizkariak eta gozariak,
goizeko 07:30etatik aurrera.
Aukeratu Kantoi taberna zure
momentu onenatarako!



BETIXU JATETXEA

Iturburu, 9 - Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Udako ordutegi berezia! Uztailaren 15etik
irailaren 15era. Pikatzeko afariak 21:00etatik
23:00etara asteartetik larunbatera, terrazan.
Jantokiko ordutegiak - Bazkariak: asteartetik
ostiralera 13:00etatik 16:00etara. Larunbat eta
igandea 14:00etatik 16:00etara. Afariak:
ostegunetik larunbatera 21:00etatik 23:00etara

PLAZAREN



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonaindia, z/g
Tel.: 94 681 80 70

Gosariak 07:00 etatik aurrera astelehenetik ostiralera. Pintxoak. Terraza 10:00etatik aurrera. 19:00etatik aurrera: entsaladak, bokatak, izozkiak, kafeak,...

Mahai zerbitzua eta giro euskalduna.



MOMOTXO

Plateruen plaza
Tel.: 94 681 10 06

Jateko zein egoteko leku paregabea. Jateko: kazolatxoak, bokatak, entsalada bereziak,...

Egoteko: terraza nahiz barruko txoko berezietan.

Etorri zaitez Momotxo tabernara!



SORGIN

Ibaizabal, 4B
Tel.: 94 681 18 81

Uda giroaz gozatzeko leku aproposa. Bertan ogitartekoak, entsaladak, razioak, pintxoak eta etxean egindako postreak!

ETORRI ETA DASTATU!

PLAZERA

Elikadura orekatua zaintzearen garrantzia

Uda sasoian, beroak dietak aldatzera bultzatzen ditu asko. Ohitura batzuk geureganatuz gero, osasuntsu eta fresko elikatzeko aukera dago

Aurkakoa pentsatu daitekeen arren, udako zein neguko dietek antzekoak izan behar dute; horrela, "fluktua-zioa, hau da, pisu aldaketak ekiditen dira", arrazoitzen du Oihane Unzalu nutrizionistak. Ostera, jarrera aldaketak gauzatzeko, uda garai egokia izan ohi da. Adibidez, udaldia garai egokia da fruta jaten "ikasteko". Egunean egitea gomendatzen diren bost jatorduetako hirutan fruta jatea aholkatzen dute. Hiru otordu horietako batean, berriz, C bitaminadun frutak jatea gomendatzen da; hau da, zitrikoak, marrubiak... Horiez gain, "freskoak" direlako, udaldian erakargarriagoak diren frutak ere badaude; meloia lakoak.

Ortuak gainezka egoten direla baliatuta, uda barazkiak eta lekale-

ak jateko garai egokia da, baita. Mineral eta zuntz asko edukitzeaz gainera, gantz gutxi duten elikagaiak dira. Astean bi-hiru egunetan jatea gomendatzen dute. Temperatura beroek ez baldintzatzen, entsaladan jateko aukera dago.

Unzuluren berbetan, udako zein neguko dietetan errepikatzen den "huts" bat dago: "dietak hiperproteikoegiak izaten dira". Unzuluk azaldutakoaren arabera, komenigarria da dietetan arraina okela baino presenteago egotea; astean lautan lehenengoa, hirutan bigarrena. "Oso gomendagarria da arrain urdina, batez ere; oso aberatsa da Omega 3ari dagokionez".

Dietetan ugaritu behar den bestalako jaki bat zuntza da, Unzuluren



berbetan; "gaur egungo dietetan gutxiegi jaten da". Elikagai integralen garrantzia ere nabarmentzen du, bide batez. Udaldian, normalean baino likido gehiago galtzen da, hori dela-eta, garrantzitsua da hidratatzea. Ura eta bestelako likido (zumoak...) asko edatea gomendatzen du Unzuluk. Aholku hori, batez ere, edadetu eta umeei begirakoa da. "Gainerakoek ez bezala, ume txikiak eta adinduek ez dute egarri sentsazio hori izaten".

Amaitzeko, egunean birritan esnekiak hartzeko gomendatzen du Oihane Unzuluk: "Kaltzio iturri ona dira".

Aldi berean, udan, elikadura osasuntsua jarduera fisikoa uztartzeko dagoen aukera nabarmentzen du Unzuluk. "Udaldian denbora libre gehiago eduki ohi da; horrez gainera, eguraldiak ere asko lagundu ohi du". Esan bezala, garrantzitsua da ohiturak aldatzea da. "Dietak konstanteak izatea garrantzitsua da", laburbiltzen du Unzuluk.

Garrantzitsua da ur eta likido asko (zukuak...) edanez hidratatzea; batez ere, edadetu eta ume txikientzat

Gomendagarriena fruta urte osoan zehar jatea da; udaldian erakargarriagoa izan daiteke, freskotasunagatik

TOLDOAK, PERTSIANAK ETA LEIHOAK

Lantegia:
Eizaga z/g
Tel.: 943 176 601
Gipuzkoa etorb. 24 bis
Tel.: 943 170 904
Ermua

Oiz kalea 10
Tel.: 94 620 20 81
Durango
Arragueta 20
Tel.: 943 120 333
Eibar

ventanaego@auskalnet.net - www.ventanaego.com

salmenta, konponketa eta boutiquea

MOTOS TABIRA

kontseionario ofiziala

BENELL • SCORPA • AJP
KEEWAY • PIAGGIO

94 681 4068

Pol. Arzubia, 10-b pabilioia 48220 MATIENA-Abadiño

www.motostabira.com

telepizza®

Askatasun etorbidea, 25 • Tel.: 94 621 81 86

VICTORIA MULTZOA

2 BESAULKI + SOFA + MAHAIA **310€**

MAHAI BAXUA **34€**

KUBOA **38€**

AURREZKIAREN PARADISUA

SINTRA MAHAI LUZAGARRIA 129€

CARIBE BESAULKIA 15,90€

ELEGANCE BESAULKIA 14,90€

EROSKI

ABADIÑO

* 2011ko uztailaren 13a arteko eskantza

Bere nortasuna eta historia dituen herria

Sarritan esaten dugu: “Zergatik joan behar dugu oporretan atzerrira, geure ingurua ezagutzen ez badugu?”. Egia da. Urrun barik, Otxandion dugu egunpasa atsegina egiteko aukera, lasaitasuna bidelagun, herriaren historia luzea ezagutuz

Urkiolako mendatean zehar Gaztelako goi-lautada euskal itsasertzagaz lotzeko asmoz sortutako herria izan daiteke Otxandio, historialarien arabera. Merkataria, soldadu, agintari eta abarren joan-etorrien testigu izan da 800 urtean, eta apurka-apurka nortasun propioa garatu du. Herriko jauregi, eraikin eta eliza ugariak nortasun horren aurpegia dira, eza-gutu gura dituenarentzat.

Uribarrenan hasi daiteke ibilaldia, interes historiko handiko hainbat etxe daudelako; kale osoan, ezker-eskuma, XVI. mendetik XIX.era arteko hainbat eraikin ikusi daitezke, sasoian sasoiko arkitektura aberatsaren isla direnak.

Santa Mariñe elizak ere badu bere xarma eta erakargarritasuna; XVI. mendean berreraiki zuten Errenazimenduko estiloan, eta ondoren dorre barrokoa erantsi zioten. Kanpandorra, berriz, XVIII. mende erdialdekoa du. Kanpotik zein barrutik bisitatzea merezi du, hainbat estilo arkitektonikoren adierazgarri diren arku, irudi edo dorreak ezagutu daitezkeelako.

Uribarrena eta Santa Mariñe bisitatu ondoren, ondo etorriko da atsedean apur bat herriko plazan,

uriko bizitza gauzatzen den inguruan. Hantxe dago udaletxea ere, eta ez da atzo goizekoa: 1733an eraiki zuten eraikin barroko hori. Plazan bertan, iaz 150 urte egin zituen Vulcanoren iturria ere nabarmendu beharra dago.

Urigoienako errabalera bidean, beste plaza bat aurkituko dugu: Andikona. Plaza hori 1936ko

Andikona plaza 1936ko bonbardaketek gehien erasan zuten gunea da, eta gaur egun eraberritzen dabilta 75. urteurrenerako

uztailaren 22ko bonbardaketek gehien kaltetu zuten gunea da. Otxandioko historiako egunik latzenetakoa izan zen hura, eta plaza horretan oroitzapenetako askok egiten dute topo. Aurten bonbardaketaren 75. urteurrena izango denez, plaza eraberritzen ari dira, eta eguna hurreratzeko doan heinean prestatu dituzten ekintzen berri emango dute.

Amaitzeko, nabarmendu beharra dago herri-gunean ez eze auzoetan ere badagoela zer ikusia. Esaterako, Zelaieta auzoan San Martin ermita ederra dago, XV. eta XVI. mendeen artean eraikia. Pagoz inguratutako gunea batean kokatuta dago, gunea pribilegiatuan, eta Udalak oraintsu ingurua garbitzeko eta atontzeko lanak egin ditu ermitaren inguruan.



otxandioko igerilekuak



IREKITA
ekainaren 15etik
irailaren 15a arte

ORDUTEGIA
goizeko 11:00etatik
arratsaldeko 20:00ak arte



AMALURRA[>]

Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Energia kontsumitzeko moduak dirua aurrezten lagundu dezake

Udan energia kontsumoa murrizteko aukerak ugaritu arren, orduan gertatzen dira elektrizitate kontsumorik handienak

Uda heltzeagaz batera, energia kontsumo ohiturak aldatzeko aukera heltzen da. Keinu txiki batzuk egitea gakoa izan daiteke kontsumo ohiturak aldatzeko; eta hileroko fakturretan euro batzuk aurrezteko. Giro epel edo beroek eta argi orduen ugaritzeak energia aurrezteko aukera eskaintzen dute. Hala ere, elektrizitate gastuen tontorrak garai horretan ematen dira. Norberaren jarrera mesedegarria izan daiteke poltsikorako zein ingurumenaren hobe beharrerako.

Gomendioak

Oporretan kanpora joanez gero, etxetresna elektrikoak deskonektatzea da egokiena; izan ere, gaur egungo etxetresna modernoek energia kontsumitzen dute martxan ez dabiltzanean ere; *stand by* egoeran.

Aldi berean, udan etxetik ez irtenda ere, eguneroko errutinan aldaketa batzuk ezarri daitezke;

erosotasunari eragin barik egin daitezke aldaketa horiek, gainera. Etxean energia gehien kontsumitzen duen tresna hozkailua da, horregatik, arreta berezia eskatzen du gailu horrek; hozkailuko atea behar denean baino ez zabaltzea gomendatzen da. Etxetik kanpora hainbat egun pasatu behar izanez gero, hozkailua desentxufatzea aholkatzen da, gainerako etxetresna elektrikoak legez; lehenago, barruan dauden elikagaiak ateratzea derrigorra da, hori bai, kaltetu ez daitezen.

Etxetresna elektriko bakoitzak energia aurrezteko bere trinkimailuak ditu. Garbigailuen kasuan, adibidez, energiaren zati handiena ura berotzen kontsumitzen da. Hori dela-eta, ohiko garbiketetan tenperatura baxuko programen erabilera sustatu gura dute; tenperatura altukoak oso zikin dauden jantziatarako uztea da onena. Horrez gainera,

tenperatura baxuetan lan egiteko prestatuak dauden detergenteak daude. Azkenik, jantziak lehortzeko eguzkia baliatzea gomendatzen da.

Aire girotuaren hazkundera

Udako energia kontsumoaz berba egiten hasiz gero, ezin da aipatu barik utzi aire girotua. Izan ere, azken urteetan, gero eta ohikoagoak bilakatu dira gure artean gailu horiek. Aire girotuaren neurriak bako erabileran, hile amaierako faktura igozteaz gainera, kaltegarria izan daiteke osasunarentzat. Hori dela-eta, 24 gradutan mantentzea gomendatzen da; tenperatura kontrolatzeko, termostatoa erabiltzea da egokiena. Alferrikako gastu energetikoak ekiditeko, beroa ematen duten gailuak termostatotik hur ez jartzea da onena. Gailuak luzaroagoan irauteko, gainera, ondo garbitzea ere garrantzitsua da.

Aire girotua 24 gradutan mantentzea da egokiena; tenperatura kontrolatzeko, oster, termostatoa ezartzea

Etxetresna elektriko modernoek, erabiltzen ez direnean ere kontsumitzen dute energia elektrikoa





Euskal kostaldea ezagutzeko aukera berezia

Barnealdean bizi arren, ezin dugu ahaztu kostalde erakargarria daukagula Euskal Herrian; txangoen bidez bisitatu dezakegu

Itsas bidaiak mediterraneoagaz edo antzeko ibilbide luzeekin lotzen ditugu normalean, baina hemen bertan bada- go bidaiatxoak egiteko aukera. Ermuko Náutica Ancón euskal kostaldean zeharreko ibilbideak prestatzen ditu; udarako interesgarriak izan daitezke.

Kalitatearen ziurtagiria bi bider jaso duen akademia nautikoa da Ermukoa, eta bere itsasontzia Lekeitioko portuan dago atrakatuta. Kostaldeko bidaiak horietan, bazter eta senai berriak ezagutzeko aukera izango dugu, baita itsas bazterre- ko herriak bisitatzeko ere. Gehigarri kul- turala ere badu, beraz, eskaintza honek. Bestalde, itsas zabalean murgiltuta, zeta- zeoak eta itsas hegaztiak ikusteko moduan izango gara.

Hori egun osoko plana egiten badugu, baina irteera laburragoak ere badaude eskura. Zumaia-ko portutik abiatu eta kostaldeko leku zehatz batera joan gai- tezke, ingurua ezagutu eta bainu bat hartzeko, bide batez.

Kostaldeko leku zehatz batera joan gaitezke, ingurua ezagutu eta bainu bat hartzeko, bide batez

Kostaldeko bidaiak hauetan, itsas bazterrak eta herriak hobeto ezagutzeko aukera izango dugu

Egun osoko irteerak

Eskaintza konkretu bat badu enpresa honek, Gipuzkoako uretan ibiltzeko. Zumaia-ko portutik irten eta egun osoko txangora gonbidatzen gaitu, Zarautz, Orio, Pasaia, Hondarribia, Donostia eta Getaritik igaroz. Ibilbide horretan Malla- Harria eta San Antongo "sagua" hurretik bistaratuko ditugu, adibidez. Horrez gai- nera, herrietako alde zaharrak, oroitarriak eta gastronomia atsedenenerako aitzakia ederrak izan daitezke.

Egonaldiak

Batzuek gurago dute egun batzuetarako planak egitea. Hori ere posible da, eta enpresagaz zehaztu daiteke bidaiak zela- koa eta noiz artekoa izango den.

Udarako beste alternatiba bat estro- padetan aurkituko dugu. Itsasontziagaz traineruen lehiara bertara hurreratzea proposamen berezia da. Ziaboga hartzen duten momentua zuzenean eta bertatik bertara biziko dugu, adibidez.

Akademia

Irteera hauetarako guztietarako gidaria edo patroia eskatu dezakegu, baina beste aukera bat da guk geuk ikastea ofizio hori. Izan ere, Náutica Ancón akademia ere bada, eta klase teoriko zein praktiko- ak ematen ditu. Tituluak ateratzeko bitartekoak eskainiko dizkigute.

Zeozor berria probatzeko gogoz ibiliz gero, uda honetan badugu geografia eta kultura batuko dizkigun plana.



náutica ancón



NAUTIKAKO ESKOLA - ITSAS TURISMOA

www.anconautica.es

Tel.: 652 773 508 • robernegi@anconautica.es

Pol. Urtia z/g - IZARRA eraikina, 1. solairua • 36. PK
48260 ERMUA (Bizkaia)

Uda lagun artean eta olgetan pasatzeko aukera

Berbarok elkarteak hainbat udaleku antolatu eta kudeatuko ditu aurten ere; horrez gainera, Durangon bere herri kanpamenduak ere egingo ditu Berbarok, lehenengoz, Ibaizabal ikastolan 104 gaztetxogaz



Udako oporrak hasteagaz batera, udalekuek ikastetxeen erreleboa hartzen dute. Gaztetxo asko desiratzen egoten dira ez oporrak hartzeko bakarrik, baita tokian tokiko udalekuek eskaintzen dituzten abenturetan murgiltzeko ere. Gainera, udalekuek badaukate zerikusirik hezkuntzagaz, formazioagaz eta baloreekin; neska-mutilei hain arrotz eta urruneko egiten zaien terminologia hori guztia modu ludiko eta dibertigarrian jasotzeko aukera eskaintzen dute udalekuek.

Era berean, etorkizunean hain baliagarri izango zaien hartu-emanen esparrua zabaltzeko ere gune aproposa dira; oraindik lagunarte estuenera mugatzen den hartu-emanen zirkulua apurka zabaltzen joango da, nahitaez, bizitzak aurrera egin ahala, eta mundu berri horretan askotariko hartu-emanen aurre egin behar zaie. Udalekuek zirkulu txikitik irten eta handirako urratsa eman aurretik hartu-eman berrietan trebatzeko aukera eskaintzen diete gaztetxoei, konturatu barik sarritan, hasieran aipatu dugun izaera ludikoa (irteerak, jokoak, ibilaldiak...) da-eta ekimenaren gidari.

Berbarok Nafarroako Aizkoa herrian prestatu duen udalekuak 54 gaztetxo batuko ditu hamar egunetan

Abadiño, Elorrio eta Zaldibarren ere udalekuak antolatu dituzte; guztira, 500 gaztetik gora batuko dira

Berbarok esperientzia zabala du udalekuak antolatzeari dagokionez, eta aurten ere Durangaldeko hainbat herritan antolatuko ditu. Durangon garatuko dutenak, gainera, nobedade handia dakar: aurten arte metatutako esperientzia oinarri hartuta, 'Udan Olgetan' izeneko herri kanpamendu propioen aldeko apustua egin dute; Ibaizabal ikastolan izango dira bost astetan eta, guztira, 104 gaztetxok eman dute izena; horiekin 16 hezitzaile ibiliko dira.

Berbarok bere ekimenez garatuko duen beste udaleku batek Nafarroako Aizkoa herrian 54 gaztetxo eta 10 hezitzaile batuko ditu hamabi egunetan. Udaleku ibiltariei dagokionez, Badartetik Hondarribira hamaika abentura biziko dituzte Durangoko 25 gazte eta lau hezitzailek, Hernaniko eta Lasarteko beste 52 gazte eta 7 hezitzaileekin batera.

Edozelan ere, esandako moduan, Berbarok hainbat herri edo ikastetxeko udalekuak kudeatzen ditu. Abadiñon aste bi iraungo dute udalekuek, eta 202 neska-mutil 24 hezitzaile-gaz ibiliko dira. Elorrian lau asteko udalekuak prestatu dituzte, eta 214 gaztetxok parte har-

tuko dute, 25 hezitzailearen begiradapean. Zaldibarren ere aste biko udalekuak izango dira Berbarok antolatuta. Amaitzeko, Kurutziaga ikastolako egonaldiek —hauek ere lau astean— 62 gaztetxo batuko dituzte, sei hezitzailearen zaintzapean.

Hezitzaileak formatuz

Formakuntza eskaintzeko, lehenengo formakuntza hori jaso egin behar dute hezitzaileek. Horregatik, zapatu honetan Pinondo etxean elkartuko dira Berbaroren udalekuetan arituko diren hezitzaile guztiak, Txatxilipurdi elkarteak kideek bideratuko duten formazio saioan. Teoria eta praktika batuz, arlo hauek landuko dituzte, besteak beste: hezitzaileak euskara suspertzeko duen erantzukizuna, baliabideak (jolas kooperatibak, euskal jolasak, kulturarte-kotasuna...) eta segurtasuna.

Zapatuan hezitzaileak Pinondon batuko dira Txatxilipurdi elkarteak bideratuko duen formazio saioan

Udako oporretan gazteek zein gurasoek nekez aurkituko dute eskaintza erakargarriagorik. Urtea joan eta urtea etorri, udalekuek izaten duten arrakastak erakusten du etorkizunean ere interesa sortzen jarraituko dutela.

BERBAROREN UDALEKUAK

UDAN OLGETAN

Ibaizabal ikastolan:

- Iraupena: bost aste
- Gazte kopurua: 104
- Hezitzaileak: 16

Aizkoa (Nafarroa):

- Iraupena: 12 egun
- Gazte kopurua: 54
- Hezitzaileak: 10

BERBAROK KUDEATUTAKOAK

Abadiño:

- Iraupena: aste bi
- Gazte kopurua: 202
- Hezitzaileak: 24

Elorrio:

- Iraupena: lau aste
- Gazte kopurua: 214
- Hezitzaileak: 25

Kurutziaga ikastola:

- Iraupena: lau aste
- Gazte kopurua: 62
- Hezitzaileak: 6

Zaldibar:

- Iraupena: aste bi
- Gazte kopurua: 60
- Hezitzaileak: 7

Udan ere euskaraz!



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA



TOMATEAK

Euskadiko baserrietan ekoiztutako tomate honek betidaniko tomatearen usaina, kolorea eta zaporea ditu. Eusko Labela duen tomateak, itxura ildaskatukoa eta barrumarraduna, bere heldutasun une egokienean biltzen da, eta horregaitik kontsumitzaileek asko estimatzen duten bete-beteko zaporea du, betidaniko zaporea.

Tomate mota onenen artean aukeratutako eta ingurugiroa zainduz hasitakoa.

Honela ezagutzen da

Eusko Labela duen tomateak zelulosazko erretiluetan merkaturatzen da, zenbakidun kontrol-etiketa batekin eta Eusko Label-Kalitatea ezaugarriarekin, edo aleka, eta kasu honetan tomate bakoitzak kontrol-etiketa txiki bat darama kalitatearen ezaugarri horrekin.

Kalitate kontrola

Araudian zehaztutako baldintzak betetzen dituzten tomateek baino ezin dute Eusko Label Kalitatea etiketa erabili. Araudi teknikoa Kalitatea Fundazioaren egoitzan eskura daiteke.



ZOZKETA

BIALDU ERREZETA BAT ETA IRABAZI EUSKO LABELDUN PRODUKTUEN OTZARA!

**Bi hilerik behin egingo den
zozketan errezeta onenak
irabaziko du otzara!**

*** Bidalitako errezeta guztiek izango dute opari bat.**

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" produktuekin egindako errezeta bat zure datuekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia". Anboto Astekaria, Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

* Eusko Label-ek jasotako errezeta guztien erabilpen eskumena izango du



anboto >
komunikabideak

MUSIKA> ZIKLOA

'Organo kontzertuak 2011' zikloaren lehenengo hitzordua

Arandoño kultur elkarteak antolatu du aurten Durangora hiru emanaldi dakartzan zikloa; organoa izango da hiru kontzertuetan protagonista, eta gaurkoa da lehenengo hitzordua

Arandoño kultur elkarteak antolatu du ekainaren 10ean 20:30ean lehenengo hitzorduan daukan Organo Kontzertuak 2011 zikloa. Ekaineko bariku horretan izango dena, eta irailean eta abenduan izango diren beste bi kontzertu antolatu ditu aurten Arandoño elkarteak.

Madriletik datoz Durangon gaur elkarrekin emanaldia eskainiko duten Roberto Fresco orga-

no-jotzailea eta Schola Antiqua taldea. Madrileko Almudenako organo-jotzaile nagusia da Fresco, eta 1984an sorturiko taldea da antzinako musikaren interpretazioan eta kantu gregorianoan espezializatutako Schola Antiqua abesbatza. Monastegietan ez bada, kantu gregorianoa zuzenean entzuteko aukerak gutxi direla-eta, barikuko Durangoko emanaldia aukera paregabea dela azpimarratu dute zikloaren antolatzaileek.

Aurreko edizioetan legez, "organo-jotzailearen zuzeneko irudiak eskainiko dituen pantaila bat" ipiniko dute Andra Mariko altarean, "entzuteko ez eze ikusteko ere" badirelako antolatzaileen berbetan kontzertuok.

Durangoko Andra Maria elizan izango da zikloaren barruko hurrengo hitzordua ere: iaz harre-beroa eduki zuena lako "elkarrizketa-kontzertua" antolatu dute Esteban Elizondo organo-jotzaileagaz irailaren 17rako. ■ I.E.

KONTZERTUAK

Ekainaren 10ean, 20:30ean

Schola Antiqua eta

Roberto Fresco

Irailaren 17an, 20:00etan

Esteban Elizondogaz

elkarrizketa-kontzertua

Abenduaren 18an, 19:00etan

Pedro Guallar organista

eta Juan Vicente Codina

tronpetista

Kantu gregorianoa eta eta organua zikloaren lehenengo kontzerturako

MUSIKA> KONTZERTUA

"Naturaren oparotasun eta emankortasunari buruz kantatzen dut"

Lau musikarik lagunduta jardungo du Plateruenean, bihar, Abarlotz Olano abeslariak. Abenduan kaleratu zuen diskoa aurkeztera dator musikari zaldibiarra ekainaren 11n Durangora

Abenduan kaleratutako diskoan jasotako kantak aurkeztera zatoz. Zelan sortutakoak dira?

Betidanik abestu dut; berez, naturalki ateratzen zaidan zerbait da. Abesti hauekin nire nortasuna nahi diot jendeari helarazi. Abes- teko mila motibo, gai asko topa- tzen ditut bizitza honetan. Bizitza- ren emankortasunean sorturikoak dira diskoko kantok.

Diskorako Mixel Ducauren kola- borazioa eduki zenuen.

Bai, Mixel Ducau txikitatik izan dut erreferente. Berarekin harreman- tan jarri nintzen, eta horrela eza- gutu genuen elkar. Aita- semeak bezala gara orain, eta poz handia da berarekin jardutea. Musika bai- no gehiago da berarekin konpar- titzen dudana: laguntasuna.

Taldeagaz joko duzu Durangon?

Oraintxe osatu dudana boskotean joko dugu Durangon, bai. Bateriak, baxuak eta gitarrek osatzen dute taldea. Orain arte, bakarlari gisa aritu izan naiz, nire harmonika- rekin eta gitarrarekin, eta taldea- rekin jardutea berria da niretzat; beste motibazio bat.

"Oraintxe osatu dugun boskotean jardungo dugu Platerueneko kontzertuan"



Zure musika ezagutzen ez duenari, zelan azalduko zenioke zer den zuzenekoan zein diskoan eskaintzen duzuna?

Bizitzak liluraturik sorturikoak kantatzen ditut; natura zer eman- korra den asko kantatzen dut, esa- terako. Barru- barrutik ateratzen zaidan sentimendua kantua- ren bitartez adierazten dut.

"Barru- barruko sentimenduak kantua- ren bitartez adierazten ditut"

Kantaera indartsua daukazu. Asko zaintzen duzu ahotsa?

Ahotsa oso inportantea dela uste dut. Maite dut Euskal Herriko sus- traietako abeslarien kantakera. Sustraiak ematen jarrai dezan guk ere gure ekarpenak egitea oso garrantzitsua dela uste dut. Gure sustrai zaharretatik hartutakoa da nire kantetan entzuten dena. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



EKAINAK 10 22:30ean
TXORIBIGUN HAITIren aldeko jaialdia
KONTZERTUA+IKUSKIZUNA. 5euro.

EKAINAK 11 22:00etan
ABARLOTZ
KONTZERTUA. Sarrera: 3euro.

EKAINAK 12 17:30ean
OLGETAN
AISIALDIA EUSKARAZ. Sarrera doan.

EKAINAK 17 23:30etan
VILLA GOMBAO Inc. (Groov-UK)
GAU ELEKTRONIKOA. Sarrera: 10-12euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

"DURANGO HIRIA" TXISTU LEHIAKETA ETA KONTZERTUA



Ekainak 11 20:00etan Parte hartzaileak:
Silboberri Txistu Banda
eta La Kantoria (Leioa)

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA



Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

KIROLAK >

Marianne Vosek bere hautagaitza aurkeztu du lehenengo etapan

Atzo hasi zen Emakumeen Bira. Holandarrak esprintean irabazi zuen lurretan hasi eta amaitu zen etapa, sasoi betean dagoela argi utziz



Marianne Vos irribarrets, podiumean, maillot horia jantzi ostean. Kepa Aginako

Martitzenean Durango-Durango klasikoa irabaztetik zetorren Marianne Vos txirrindulariak indartsu hasi du Emakumeen Bira; etapa irabazteaz gainera, lider eta erregular-tasunaren maillotak jantzi ditu; esprintean gailendu da txirrindulari holandarra. Podiuma, Ina Teutenberg eta Elizabeth Armstrongekin.

Azken hiru edizioetako txapeldunak lurretako irteeran izan dira

ad txirrindulariek osatu zuten. Guztira, 01:54:38 behar izan zuten 75 kilometroko etapa burutzeko. Lehendabiziko euskal herritarra Eneritz Iturriaga abadiñarra izan zen; 81.postuan amaitu zuen.

Atzo hasi, eta domeka arte, goi mailako txirrindulariak lehiatuko dira euskal errepideetan. Hain zuzen ere, 18 taldek parte

hartuko dute aurtengo Emakumeen Biran, tartean, Diadora-Pasta Zara, Nederland Bloeit, Lotto edota Fassa Bartolo. Etxekoak ere saiatuko dira podiumeko lehenbiziko koskara igotzen; Eneritz Iturriaga abadiñarra eta Debabarrena-kirolgi taldeko Leire Olabarria lehian arituko dira. Jon Elorriagak gidatzen duen Bizkaia-Pandak ere parte hartuko du lehian.

Atzoko etaparen ostean, gaur arratsaldean bigarrena abiatu da, 15:30ean; lurretatik irtengo da pelotoia, eta faboritoei aldeak egiteko aukera ona

Bihar goizean, Elorriotik Kanpazarrerako kronoigoera egongo da

izango dute; Lekeitioko helmuga zeharkatu aurretik, Millo birritan igo beharko dute-eta. Biharko etapak, hirugarrenak, bi sektore izango ditu. Goizean, Elorriotik Kanpazarrerako kronoigoera (7,6km) egin beharko dute. Arratsaldean, oster, Deba-Deba etapa egongo da. Azken etapa, jada klasiko bilakatu den Urduña-Urduña izango da. Domeka goizean ekingo diote ibilbideari, eta 3.mailako Garate eta 2.mailako Barrerilla igo ostean, Urduñako igoerari ekin beharko diote txirrindulariek. Erabakigarria izan daiteke azken igoera hau. ■ A.M.

Ingelesa eta txirrindularitza uztartzen dituen ikastaroa

Ingelesa eta txirrindularitza uztartuko dituen udalekuak antolatu ditu Sociedad Duranguesa elkarteak; losu Amutxastegi antolatzailearen berbetan, ekimen aitzindaria da; "ez da inon gehiago egin". Bizikletan ibili eta txirrindularitzari buruzko irakaspenak (mekanikoak...) jasotzeaz gainera, umek teoria ere ikasiko dute; Eskoziako bi txirrindulari arituko dira irakasle legez. Ikastaroa 9-14 urte bitarteko gazteei bideraturik dago. Izena emateko: 629 823 162. ■ A.M.

Alluitzen aurkitu zuten galdutako gizonaren gorpua

Zapatuan Atxarte inguruan galdu zen mendizalearen gorpua martitzenean aurkitu zuten, Alluitz mendiaren hegoaldeko malkarrean. Benjamin Gonzalez kirolari ohia zen desagertuta zegoen mendizalea. Durangon duen familia bisitatzeako asmoagaz etorri zen atleta. Zapatu goizean ateratu zen, bazkaltzeko etxera bueltatzeko asmoz. Gonzalezek 1984ko Olinpiar Jokoen parte hartu zuen. 1985ean 800m-ko munduko txapeldunorde izan zen Parisen. ■ A.M.

R7 Waldhaus txapelketa, bihar, Arripausuetan

R7 Waldhaus Cup txapelketa jokatu dute zapatuan, hilaren 11n, Arripausuetan. Euskal Herriko hainbat talde elkarren kontra lehiatuko dira, tartean, DRT. Arratsaldeko 15:30ean hasiko dira partidukoak.

Partiduekin batera, iluntzera arteko egitaraua osatu dute antolatzaileek. 20:30ean, afaria egongo da. Bertan, sari banaketa ere egingo dute. Egunari amaiera emateko, emanaldia egongo da, Las Felini taldearen eskutik. ■ A.M.

Mas Curvas elkartearen 4. urteurrena zapatuan

Motozaleen elkartearen urteurrena ospatzeko, egun osoko egitaraua prestatu dute

Mas Curvas elkarteak urteurrena ospatuko du bihar, hilak 11; laugarren urtea beteko dute, hain zuzen ere. Ospakizun horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dute motozaleek. Motorrean bi irteera egingo dituzte: lehenengoa 10:30ean abiatuko da, eta Arteako Ekumuseoan geldialdia egingo du;

lanabesak eta euskal historia daude ikusgai bertan. Bigarren irteera 16:00etan izango da; aurretik, 14:00etan bazkaria egingo dute. Arratsaldeko ibilaldiak Durangaldea zeharkatuko du; bi orduko izango da. Izen-ematea zazpi eurokoa izango da. Iluntzerako, jokoak eta barbakoa prestatu dituzte. ■ A.M.



Motozale ugari batu ohi ditu ospakizun honek.

Bigarren mailara igotzea lortu du Sapuberri taldeak

Denboraldi bakarrean, taldea sortu eta Bigarren Mailara igotzea lortu dute gazteek; 20-30 urte bitarteko adina dute jokalariek.



Jarraitzaileen babesa gakoa izan zen Goiztiriren aurkako partidaren.

Taldea sortu eta urtea bete baino lehenago, mailaz igotzea lortu du Durangoko Sapuberri taldeak. Jelko Uribe taldekideak "ondo pasatzeko helburuagaz sorturiko lagun taldea" dela dio. Uribek azaldutakoaren arabera, taldekideek ez zuten itxaroten igoera lortuko zutenik.

Puntuak lortu ahala, igotzeko aukera zeukatela sinestuta, entrenamendu "serioagoekin", gogoz ekin zioten denboraldi amaierari. Liga hirugarren pos-

tuan amaitu eta gero, Goiztiri taldearen kontrako kanporaketa jokatu behar izan zuten; 3-1 irabazi zuten durangarrek, Uribe (2) eta Troya jokalarien golei

J. Uribe: "Ez genuen itxaroten lehenengo urtean igoera lortzerik"

eskerrak. Partida Tabiran jokatu zuten; zaleen berotasuna igarri zuten, beraz.

Oraindik igoera gozatzen ari diren arren, datorren urtera begira jarri dute gogoia jada; "Fitxaketa batzuk egin ditugu, lagunak hauek ere" aurreratu du Uribek. Taldea indartzeagaz baikor agertu da Uribe. "Gaitza izango da sailkapeneko goialdean ibiltzea; hala ere, mailari eusteko moduko taldea izango dugula pentsatzen dut". ■ A.M.

Kulturala utzi eta Zornotzara joango da Intxaurreaga

Mikel Agirregomezkortak gidatuko du talde durangarra 2011/2012 denboraldian

Axier Intxaurreaga entrenatzaile berriztarrak Kulturala utziko du, bi denboraldi eta gero; datorren denboraldian, 2.B mailara igoera lortu berri duen Zornotza taldea gidatuko du. Talde durangarrean eginiko bi urteak "zoragarriak"

Intxaurreaga: "Urte zoragarriak izan dira Kulturalan egindakoak"

izan direla adierazi du entrenatzaile berriztarrak.

Zornotzan ekingo dion aroari dagokionez, "ilusioz" dagoela aurreratu du Intxaurreagak. "Denboraldi gogorra izango da, talde indartsu asko daude-eta maila honetan; hala ere, ilusioz hartu dudun erronka da". Taldeak azkeneko urteetan egindako "gorakadak" eta 2.B mailan entrenatzeko gogoak bultzatu du Intxaurreaga jauzia ematera. Bestalde, Kulturala Mikel Agirregomezkortak gidatuko du datorren denboraldian. ■ A.M.

Gotzon Gomez
•Errugbi entrenatzailea



Elorrio errugbi taldeak 30!

Aurten eskualdeko taldeek badute zer ospatu, eta hori dela-eta, historia apur batekin hasi naiz. 1980. urtean gaude Elorrioko jaietan, Buzkantz koadrilak errugbiaren pozoia zabaltzeari ekin zion, koadrila honi Manex eta Teofiloren lagun batzuk gehitu zitzaizkion, eta hasierako hazi horretan Unibertsitate garaiko jokalarik ohiak edo Arrasaten aritutakoak ere ibili ziren. Jaiak bukatu ondoren, entrenamenduak hasi zituzten Elizaldeko zelaian. 1980-81 denboraldian garaiko taldeen kontrako lagun arteko partidak jokatu zituzten, besteak beste. Benetako debuta Bizkaiko Federazioak antolatzen zuen udaberriko txapelketan etorri zen.

Klubaren izen-emate ofiziala 1981eko otsailaren 23an suertatu zen, hau da, Tejerok Parlamentuan gaupasa egitea pentsatu zuen egun berean, eta geroztik hura izan da urteurrenak ospatzeko hartutako data. Bitxikeria moduan, lehen entsegua egin zuten egunean, partida gelditu zuten, eta bandan zeudenak txanpana atera eta ospatu ondoren partidari jarraipena eman zioten. Geroztik 30 urte pasatu dira, eta tartean jokalarik ugari. Ibilbidea gogoratzeko eta ospatzeko asmoz ekainaren 18rako ekintza batzuk antolatu dituzte: 15:30etik aurrera, San Roken, rugby tag txapelketa mistoa eta herrikoia. Iluntzean herriafaria plazako frontoian. Ondoren, erromeria Erlaxi taldearekin eta zezen suzkoa. 30 urte arin esaten da, baina hori lortzeko ezinbestekoa izan da hainbat lana. Zorionak Elorrio Rugby Taldeari, eta urte askotarako!

Mendizabalek eta Untoriak jantzi dute Biharko Izarrakeko txapela



Biharko Izarrak txapelketako finalean 22-15 irabazi diote Igor Azpiri elorriarrak eta Aretxabaletak osaturiko bikoteari. Zortzi-na berdinduta egon zen partida, baina ere, 13-11koagaz garaipena bideratu zuten gorriek. Asegarceko eta Aspeko ordezkariak egon ziren Mallabiko pilotalekuko ikusleen artean.

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrioren ere aukera onak

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ALMACENES ARRASATE

TIEN 21



Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industriegunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13



 2 URTE 1000 b/min 6 kg A+ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA ALF 1106 260 € aspes	 2 URTE 1000 b/min 6 kg A+ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA WAE20010EE 345 € BOSCH	 2 URTE 1200 b/min 6 kg A+ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA WM12E222 375 € SIEMENS	 2 URTE 1000 b/min 7 kg A++ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA ZEN-L1217 310 € edesa	 2 URTE 1400 b/min 7 kg A+ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA WM14E465EP 410 € SIEMENS
 2 URTE 1000 b/min 8 kg A+ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA F-2810 399 € FAGOR	 2 URTE 1400 b/min 8 kg A+ Sailkapen energetikoa GARBIGAILUA L-74950-A 440 € AEG	 2 URTE 7 kg KONDENTSAZIOA B Sailkapen energetikoa LEHORGAILUA T-56840-L 435 € AEG	 2 URTE A Sailkapen energetikoa ONTZI-GARBIGAILUA SN25E206EU 360 € SIEMENS	 2 URTE GARBIGAILUA ROOMBA 531 370 € iRobot
 2 URTE A Sailkapen energetikoa AI-1300 INDUKZIOA 335 € aspes	 2 URTE A Sailkapen energetikoa LABE PIROLITIKOA HBA-74A250E 440 € INDUKZIOZKO PLAKA 465 € BOSCH	 2 URTE A Sailkapen energetikoa INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220 950 € LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M AEG	 2 URTE 1850 X 600 X 600 NO FROST A Sailkapen energetikoa HOZKAILUA KGN-36NVW20 490 € SIEMENS	 2 URTE 2000 X 600 X 600 NO FROST A+ Sailkapen energetikoa HOZKAILUA KGN 39VI20 660 € BOSCH

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.



anboto.iragarkilaburrak.com

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23. **Paperean, ordainduta:** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Muntsaratx. Bi logela, bi komun, egongela, sukaldea (eskegitokia), balkoia, garajea eta trastelekua. Ia berria. Oso polita. 615 007 216

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Tel: 647 777 392

Durango. 98 m2. Eguzkitsua. 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular. Altxariz betea, aluminiozko leihoak, ateak eta zoria aldatuta. Garaje eta igerilekua-ekin. Tel.: 655 704 684

Durango. 62 m2, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa. Berriztua eta jantzitza. Oso eguzkitsua. Tel: 699 409 959

Durango. 94 m2. Herriko gudarien plaza. 3 logela, 2 komun, sukaldea (eskegitokia), egongela, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekoa. Prezioa: 336.000 euro. Tel.: 615 760 801.

Durango. Aukera. Sasikoa kalean. 70 m2, 3 logela. Balkoia. Igoailuarekin. Tel.: 629 414 363

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Erabat berriztatutik. Erabat jantzitza. Gas instalazioa egin berri. Oso argitsua. Deitu: 659 425 890. aotxotorena@yahoo.es

Durango. 3 urte. 2 logela, 2 bainugela, saloia, sukaldea eta 90m2-ko terraza handia. Garajea. Tel.: 637 416 438

Elgoibar. Obra egin beharra dauka. Posibilitate haundiak. Tel.: 606 93 33 02.

Elorrio. Handia. Sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun eta garaje itxia. Prezio ona. Tel.: 685 734 825

Elorrio. 65 m2. Buzkantz kalean. 2 logela, komuna, sukalde-egongela eta ganbara. Igoailua. Kokapen oneko etxe polita eta eguzkitsua. Prezio ona. Tel.: 94 682 12 34

Mallabia. Baserria eta 20.000 m2-ko lur zatia salgai. Kokapen ona. 340.000 euro. Tel.: 655 702 647 (20:00-22:00 artean deitu)

Otxandio. Kale baserria. Bi solairu eta kamara. Tel.: 656 763 652

Zaldibar. 300 m2-ko baserria berriztuta. 24.000 m2-ko lursaila. Oso eguzkitsua. Negozia garria. 625 705 997

Zornotza. Euban. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lur-saila. Aukera paregabea!. 695 70 18 58

EROSI

Durungaldea. Baserria erosi nuke, lursail apur batekin. Ez du inporta egoera. Prezioa 250.000 euro (negozia garri). 618 936 214.

ERRENTAN EMAN

Abadiño. Pisu bat alokagai Muntsaritzen. Garaje partze-

la eta ganbara aukeran. Tel.: 660 646 292 / 680 581 507

Berriz. Abalarekin. 3 logela, egongela, 2 komun eta sukaldea. Herri erdian kokatua. Tel.: 688 685 429

Elorrio. Erdialdean 100 m2-ko pisua alokagai. 3 gela, ezkaratza, saloia, 2 komun, igo-gailua. Sartzeko prest. Deitu: 605 72 12 73 (arratsaldez).

ERRENTAN HARTU

Durango. Bikote euskalduna alokairuko pisu bila, Durangon, Abadiñon edo lurretan. Biok lanean. 626 174 241

Elorrio. Bikote euskalduna alokairuko etxe bila. Biok lanean. Tel.: 653 728 187

